



Ingurumen
Hezkuntza
Edukazioz
AMBIENTAL

Iraultza eta berrikuntza
hezi

ESKOLAKO AGENDA 21en GIDA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIBERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitalpena:	1.a, 2008ko uztaila
Ale-kopurua:	4.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
Internet:	www.euskadi.net
Argazkiak:	Jose Marañón. Archivo Ingurugela.
Egileak:	Jon Benito Iza, Jose Manuel Gutierrez Bastida, Ricardo Hernandez Abaitua eta Jose Marañón Zaldondo
Aholkularitza eta koordinazioa:	Asun Fernandez Ostolaza
Diseinua eta maketazioa:	Diagonal M&P
Inprimatzea:	Gráficas Varona, S.A. Polígono "El Montalvo", parcela 49 - 37008 Salamanca
ISBN:	978-84-457-2779-9
Lege-gordailua:	VI-329-2008
Eskerrak:	Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Ingurugelako kideei eta lagundu diguten gainerako guztiei

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Iraultza eta berrikuntza
hezi

ESKOLAKO AGENDA 21en GIDA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Aurkibidea

AURKEZPENA	5
SARRERA	6
I. IRAUNKORTASUNERAKO HEZI	7
1.1. Iraunkortasuneko hezkuntza	9
1.2. Tokiko Agenda 21	12
1.3. Tokiko Agenda 21 eta Eskola	14
2. ESKOLAREN ORDUA	15
2.1. Zer da Eskolako Agenda 21?	18
2.2. Zertarako da Eskolako Agenda 21?	20
2.3. Nork hartzen du parte?	21
2.4. Norentzat da Eskolako Agenda 21?	22
3. PROGRAMAREN GARAPENA	23
3.1. Nola hasten da Eskolako Agenda 21en prozesua?	24
3.2. Nola antolatzen da eskolan?	26
3.3. Zeren inguruan lantzen da Eskolako Agenda 21?	29
3.4. Nola garatzen da?	32
3.5. Eskolako Agenda 21en komunikazioa eta ebaluazioa	40
3.6. Etorkizunari begira: balorazioa eta hausnarketa	47
4. BAIKIBIDEAK	53
4.1. Material didaktikoa. Bibliografia. Aldizkariak. Web-ak	54
4.2. Ingurugelak	58
5. GLOSARIOA	59

Aurkezpena

Garapen Iraunkorrenako Hezkuntzaren Hamarkadaren (2005-2014) barruan, UNESCOk inakortasuneko jardunbide egokitzat hartu du EAEko Eskolako Agenda 21 programa. Aitortza horrek programan egindako lana nabarmentzen du, eta inplikatu diren agente guztiei adore ematen die jorratutako bidea etengabe hobetzen segitzeko. Bigarren eragin horri lotu behar zaio, poztasunez aurkezten dugun material hau.

Eskolako Agenda 21 izaeraz eta helburuz planeta osorako programa da. Gure Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzak *Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian* hartutako konpromisoaren ondorioa da. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak sustatzen dute programa, eta, horretarako, laguntza ekonomikoez gain, prestakuntza, material didaktikoak, aholkularitza eta ikerketa ematen dizkie ikastetxeei Ingurugela zentronen bitartez. Udalek, bestalde Tokiko Agenda 21ek ireki dituzten aukerez baliatuz, beharrezko bultzada eta lankidetzak eskaintzen dizkiete ikastetxeei.

Une honetan iraunkortasuneko hezkuntza funtsezkoa da gizakion eta ingurumenaren artean bestelako harremana sustatzeko eta, ondorioz, ingurumen-krisiak gaindituko dituen etorkizuna inudikatzeke; gainera, tresna ezin hobe da ikastetxeetan curriculumaren berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea eragiteko, baita euskal curriculum berriaren oinarritzko kompetentziak garatzeko ere. Arrazoi horiek guztiek Eskolako Agenda 21 programa hobetzeko egiten diren proposamenen garrantzia azpimarratzen dute.

Iraunkortasuneko hezkuntzaren balioetan oinarrituz, eta 2007. urtean argitaratutako *Eskolako Agenda 21en ebaluazioaren emaitzak*, 2008ko 40. *Jardunbide Eskolako Agenda 21 programa* eta beste zenbait hausnarketa eta proposamen kontuan hartuz, aurkezten dugu orain material berri hau: *Eskolako Agenda 21en gida. Iraunkortasuneko hezkuntza*, hain zuzen ere. Gure ustez, gida horrek ikastetxeetan garatzen ari diren proiektuen jauzi kualitatiboa ahalbidetuko du.

Eskolako Agenda 21en gida berriak irekitzen duen bideari ekin diezaiozuen animatzen zaituztegu, baita haren urratsak segitu, haren baliabideak erabili, haren esperientziak kontrastatu ditzazuen ere; horrela, guztion artean, egunetik egunera programa hobe egin dezakegu, eta, ondorioz, eskola eta gizarte hobeak ere bai.



José Antonio Campos Granados
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua



Esther Larrañaga Galdós
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua



Sarrera

Gaur arte...

Ingurumen-hezkuntzak gero eta eragin nabarmenagoa izan du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, bereziki, 80ko hamarkadatik aurrera. Hasierako proiektuak puntualak eta partzialak izan ziren, baina, pixkanaka, proiektu zabalago eta integralagoetara pasatu zen gero, eskolaren beraren funtzionamendu arduratsua eta iraunkorra lortu nahian. Horrela hasi ziren lantzen 90eko hamarkadan “Eskola Ekologikoak”, “Ekoeskolak” eta “Ekologia Eskolan” izeneko programak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan, 2001. urtetik aurrera, Tokiko Agenda 21 programak hasi ziren lantzen. Egoera horrek eskola eta udalerrien arteko sinergia sortu zuen eta aukera bikaina zabaldu zuen beren ingurumen-programak uztartzeko. Modu horretan hasi zen garatzen, 2003. urtetik aurrera, Eskolako Agenda 21.

Eskolako Agenda 90eko hamarkadan garatu ziren programen jarraipena da, alde batetik. Baina, bestetik, programa haien oinarriak garrantzizkoenak mantendu arren, badakar berritasunik ere. Eskolako Agendak, esaterako, iraunkortasuna bihurtu du hezkuntzaren oinarri eta xede, ikastetxea ardatz harturik ikuspegi globalagoa landu du, eta eskolaren eta herriaren arteko loturan haratago doa, Tokiko Agenda 21en osagai modura garatzen baita.

Eskolako Agendari eutsi, eta 27 ikastetxe hasi ziren lanean 2003. urte hartan. Ez zegoen artean ia inolako erreferentziarik, programa hura, neurri handi batean, aitzindaria baitzen. Hala ere, Eskolako Agenda 21 martxan ipintzeko orduan, funtsezkoak izan ziren 1990ean sorturiko Ingurugelak. Izan ere, ingurumen-hezkuntzako programak sustatu eta aholkularitza-lana bete zuten, eta, urte horietan guztietan lortutako ezagutza eta esperientzia baliatuta, programa berrirako norabidea markatu eta horretarako ezinbestekoa zen tresna bat sortu zuten: *Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida.*

Harrezkero ez da urte asko pasatu, baina programa nabarmen sendotu eta hedatu da 2007/2008 ikasturteko datuek erakusten diguten bezala: 420 ikastetxe (% 60) ari dira parte hartzen, 115 udalerritan (lautik hirutan, eskola dutenen artean). Horrek esan nahi du, Eskolako Agenda 21 hasterakoan sinatzen den Hitzarmenean hartutako konpromisoaren arabera, 14.896 irakasle eta 160.295 ikasle daudela horretan inplikaturik. Izan ere, gaur egun EAeko *iraunkortasuneko hezkuntzaren* zutabe garrantzizkoena bilakatu da Eskolako Agenda 21. Gainera, orain arte egindako ibilbideak, esperientzia interesgarriak hornituta, agerian utzi du programa honek baduela nahikoa potentzialtasun eta gaitasun,

XXI. mendeko hezkuntzak dituen asmo nagusiei erantzuteko; halaxe dago jasota *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa 2003-2006* izeneko ikerketan.

Gaurtik aurrera...

Esperientzia anitz eta aberats horiek aintzat hartuta, programak dituen erronka berriei erantzuteko asmoz egin da gida berri hau. Ildo beretik jarraituta, lehengoaren erro garrantzizkoenak gorde ditu, baina, aldi berean, urte hauetako ekarpen interesgarrienak ere bereganatu ditu. Bestalde, *2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia* eta *Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko Konpromisorantz EAEn* dokumentuen arabera, programa hau, 2012rako, derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxe guztietara zabaldu nahi da. Gida honek, azken batean, helburu hori lortzeko bidean, ikastetxe guztietan ulergarria, argigarria eta eraginkorra izatea nahi du. Beraz, hori kontuan hartuta, hauexek dira gida honen ezaugarri eta berritasun aipagarrienak:

- Benetako gida baten izaera indartu da. Hori dela eta, “Programaren garapena” izeneko atalean azaltzen da, urratsez urrats eta behar beste zehaztasunez, Eskolako Agenda 21 garatzeko zer egin behar den eta nola eta noiz egin daitekeen.
- Ikastetxeetan egindako zenbait esperientzia adierazgarri txertatu dira, programaren bideragarritasuna azpimarratzeko eta gidaren azalpen teorikoak argitzeko. Horrela, eskoletako eragileek (zuzendaritzak...), adibide erreal horiek irakurritakoan, erraz ikusiko dute programa garatzea beren ikastetxeetarako ere onuragarria, baliagarria eta interesgarria izan daitekeela.
- “EA21eko koadernoak” (6.atala) ere aurkeztu da, fitxaz osatuta. Era horretara, EA21en koordinatzaile guzti-guztiek programa errazago garatzeko bide-orri argia izango dute eta ikasturtean zehar egingo duten lan guztia ondo sistematizatzen zuten oinarri sendoa ere bai. Gidan 10 fitxa agertzen dira hutsik, betetzeko. Nahi izanez gero, adibide modura, fitxa horiek beteta ere agertzen dira erantsitako CDan. Gainera, beste fitxa osagarri batzuk ere bildu dira.
- Ulergarritasunari begira, argibidea eskatzen duten kontzeptuekin osatutako “Glosario” txiki bat ere gehitu da.

Eskolako Agenda 21ek etengabeko berritze-prozesua eskatzen du, eta gida honek, hain zuzen ere, horri erantzun nahi dio, horixe baita programak dituen gaitasunak eta aukerak behar bezala garatzeko bide bakarra.

1



IRANĀKORTASUNERAKO HEZI

- 1.1. IranĀkortasuneko hezkuntza
- 1.2. Tokiko Agenda 21
- 1.3. Tokiko Agenda 21 eta Eskola



izarteak ingurumenaren krisiarekiko duen sentsibilizazio-maila nabarmen handitu da azken hiru hamarkadetan. Orain jabetzen gara, bai, gure planetak mugak dituela eta “mundu bakar bat” dugula guztiok bizi ahal izateko. Erabiltzen ditugun baliabide asko desagertzekotan dira, gehiegikeriaz ustiatu ditugulako. Gure ekoizpen-jarduerak –neurri handi batean, gure kontsumo-estiloak hala behartuta– kaltea dakarkio ingurumenari eta eragin horrek arriskuan jartzen du Lurraren oreka. Badakigu gutxiengo aberats honen produkzio-eta kontsumo-estiloa planeta osora hedatzea ezinezkoa dela, alde batetik, planetak muga argiak dituelako, eta, bestetik, bizimodu oparo hori mundu osora zabalduta, ingurumen-arazoak mila aldiz areagotuko lirakeelako. Beraz, argi dago gure bizimodua ez dela batere solidarioa. Egoera horren aurrean behar-beharrezkoa da gobernuek, eta, oro har, erakunde publikoek, munduan hainbat neurri eta politika ezartzea, kontsumoak eta, oro har, giza jarduerak iraunkorrak izan daitezen.

Erabaki zabalak eta orokorrak garrantzi handikoak dira, baina gutariko bakoitzaren eguneroko jardun individuala onerako aldatzea ere oso garrantzizkoa da, nahiz eta, itxura batean, presio-talde boteretsuen aldean ondorioak hutsalak izango direla pentsatu

zenbaitetan. Zaila dirudien arren, herritar askoren ekimen txikiek ekonomia-indarren joera alda dezakete. Horregatik, itunaren kultura sustatzea eta herritarren ekintzak bultzatzea, horiek dira krisi- eta ziurgabetasun-egoera honetan jokatzeko modurik egokienak. Izan ere, ildo horretatik, gauza guztiak lagun dezakete (eta lagundu behar dute) gure munduaren egoera ekologikoa hobetzen, bai gobernuen politikek, bai nazioarteko akordioek baita tokiko eta banakako ekimenez ere.

Ingurumen-hezkuntzak, laurogeiko hamarkadatik aurrera, asko lagundu du iritzi-egoera hori sortzen eta kontzientziak pizten, ingurumenaren narriadurari dagokionez. Askok lagundu du ingurumena oso-osorik hartu behar dela eta konplexua dela uler dezagun, gure inguruko ingurumen-erloto arazoetan inplika gaitezen eta natura errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak har ditzagun.

Azken urteotan, iraunkortasuna bihurtu da ingurumen-hezkuntzaren oinarri eta xede. Horrela, bada, *iraunkortasuneko hezkuntza* horrek azterketa integratua egiten du ingurumenari buruz, garapen iraunkorrera bideratutako proposamenak sustatzen ditu eta herritarren partaidetza nahiz lankidetzaren eragiteko estrategia eta baliabideak planteatzen ditu.

Iraunkortasun

hitza “iraun” aditza du oinarrian (egoera berean jarraitu, egoera jakin bati eutsi). Aditz horri “-kor” atzizkia gehitu zaio, iraunkorra baita irauteko joera duena, luzaroan irauten duena eta eteten ez dena. Azkenik, “-tasun” atzizkia jarrita, iraunkorra denaren nolakotasuna adierazten da. Kontzeptua inguruko hizkuntzetan ere halaxe erabiltzen da, esaterako, gaztelaniaz, “Sostenible”; eta ingelesez, “Sustainable”; biak ere, sus tenere (kontserbatu, defendatu) latinezko esamoldea oinarri hartuta. Hitz horrek adierazi nahi du, baliabide biofisikoak, ekonomikoak eta sozialak erabiltzerakoan, eremu geografiko jakin horretako karga-ahalmena izan behar dela aintzakotzat. Erabilera horrek bidea eman behar du, nolana den ere, egungo eta etorkizuneko belaunaldiak premiak asetzeko beharrezko diren onurak eta zerbitzuak lor ditzagun, hemen eta han, orain eta gero.

Iraunkortasunak oinarritzeko bi kontzeptu hartzen ditu bere baitan: premiak, bereziki, behartsuenek dituzten **funtsuzko premiak** (lehenetsia izan beharko lukete horiek), eta **mugak**, planeta finitu batek muga naturalak izanik, ezinezkoa baita etenik gabe haztea.

1.1. Iraunkortasuneko hezkuntza

Iraunkortasuneko hezkuntza ezinbestekoa da benetan, funtsezkoa baita pertsonak modu egokian heztea, gai izan daitezen ingurumen-arazoei aurre egiteko eta erantzunak eta intenbideak bilatzeko, bai hemen bai mundu osoan, bai orain eta bai gero




Iraunkortasuneko hezkuntzak ekimenak sustatzen ditu ingurumenari lotutako arazo zehatzak eta jakinak konpontzen ikasteko. Batetik, arlo horri buruzko ezagutzak, errespetuzko balioak eta prozedura teknikoak landu nahi ditu, eta, bestetik, ingurunean eragina duen komunitate-praktika ere garatu nahi du.

Komunitate-praktika horrek zer eskatzen du? Besteak beste, gizarte-ongizateko alderdiei garrantzi handiagoa ematea, ikasleak negoziatorako behar diren trebetasunetan prestatzea, eta, oro har, erabakiak hartzeko zenbait gunetan parte hartzea. Gainera, praktika horren bidez, komunitatean izan beharreko

aldaketa-prozesuetan gehiago inplikatu behar da, eta etika bat ere garatu behar da, gainerako herritarrekin batera guztiok erantzule izan gaituzten eta elkartasuna erakuts dezagun behartsuenei laguntzeko.

Gizarte osoak eta hezkuntza-sistemak berak ere ahalegina egin behar dute baliabide naturalen eta biodibertsitatearen babesaren alde egiteko, eta bakearen, justizia sozialaren eta elkartasunaren ideietara hurbiltzeko, hau da, iraunkortasunaren bidean jartzeko. Bide horretan tokiko ekimenak eta Eskolako Agenda 21 baliagarriak dira parte-hartzea sustatzeko, kudeaketa hobetzeko eta gazteen ezagutzak areagotzeko.



• Gizartearen bilakaera historikoa eta horrek sorturiko zenbait ingurumen-inkaktu

• Iraunkortasunaren ibilbide kronologikoan nabarmen daitezkeen zenbait mugarri



1.2. Tokiko Agenda 21

Arazo orokorreari aurre egiteko, behar-beharrezkoa da tokian tokiko arazoei erantzutea. Izan ere, herri bakoitzean iraunkortasunaren alde lan eginez gero, planeta osoaren egoera hobetzen lagunduko genuke



Ingurumenari eta Garapenari buruz Rio de Janeiron 1992an egindako Nazioarteko Konferentzian 175 herrialdek hartu zuten parte eta, han sinatutako dokumentuen artean, AGENDA 21 da agiririk garrantzitsuenak. Agenda ekintza-plan horrek gure planeta honetan bizitza-oinarri diren sistemak zaindu nahi ditu, eta Lurra bertan bizi ahal izateko moduan eta erabiltzeko moduan utzi nahi die etorkizuneko belaunaldiei. Ekintza-plan hori dagoeneko martxan da, eta gobernuak, Nazio Batuetako erakundeak, eta ingurumenean eragina duten bestelako talde, enpresa eta instituzioak ere hasi dira plana aplikatzen.

Agenda 21ek jarraibideak ezarri zituen tokiko erakundeentzat, eta, ildo horretatik, Aalborg-eko Gutuna sinatu zen 1994an. Hortxe hasi zen Europar Tokiko Agenda 21. Horri esker, Europako hiri askok hartu zuten beren lurraldeen iraunkortasunaren alde lan egiteko konpromisoa, eta hori betetzeko honako helburu hauek ezarri zituzten: komunitateko eragile ekonomiko eta sozial guztiek parte hartzea, ingurumen-egoeraren diagnostia egitea, eta tokiko edo eskualdeko iraunkortasuna lortzera bideratutako neurriak planifikatzea. Aztertu, diagnostikatu eta planifikatu beharreko arloak ere ugariak dira: lurraldeko natura-baliabideak eta biodibertsitatea,

gizarte- eta ekonomia-garapena, energia, hondakinak, trafikoa eta garraioa, osasuna eta ingurumen-arriskuak, eta herritarren prestakuntza eta partaidetza. Gai horietako bakoitzari buruz, ingurumen-adierazle batzuk erabakitzen dira urtetik urtera izandako hobekuntzak neurtzeko eta oraindik lortu ez dena detektatzeko.

Tokiko Agenda 21 diseinatzeko hasierako fasean, 2001. urtetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek Udaltalde 21 izeneko lan-taldeak osatu dituzte. Lan-taldeotako kideak eskualde bereko udalerriak zein elkarren ondoan daudenak dira. Behin ekintza-planak diseinatu eta onartu ondoren, udalerriak Udalsarea 21eko kide izango dira; alegia, Iraunkortasuna lortzeko Euskal Udalerrien Sarean sartuko dira, sare hori baita, azken batean, garapen iraunkorraren alde lanean ari diren erakundeak lankidetzan aritzeko eta elkarrekin koordinatzeko gunea.

Bestetik, Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategian (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru-Programan (2007-2010) zehazten diren ingurumen-helmugek eta helburu estrategikoek Tokiko Agenda 21etan garatzen ari diren ekintza-planak orientatzen dituzte.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiaren helmugak	Ingurumeneko Esparru Programaren helburu estrategikoak (2007-2010)
1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea.	1.1. Aire garbia. 1.2. Uraren kalitate ona. 1.3. Lurraren kutsadura aurreikustea eta zuzentzea.
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.	2.1. Baliabide naturalen kontsumo arduratsua. 2.2. Energia kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea. 2.3. Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko isurketarik eza.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.	3.1. Gure aniztasun biologikoari eustea.
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna.	4.1. Mugikortasunaren kudeaketarako beste eredu baterantz. 4.2. Lurraldearen erabilera orekatua lortzea.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.	5.1. Berotegi efektuko gasen isurpena mugatzea. 5.2. Klima aldaketara egokitzea.

• Aalborg-eko konpromisoak

Iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Gutuna, Aalborg-eko Gutuna izenez ezagunagoa dena, Europako Herri eta Hiri Iraunkorren Kanpainaren hasiera izan zen. Kanpainaren helburua zen iraunkortasunaren alde lan egiten ari diren udalerrriak sustatzea eta laguntzea. 2004. urtean Aalborgeko konpromisoak -10 gai zabaletan bilduta- onartu ziren. Sinatzaileek honako konpromiso hauek hartu zituzten:

1. Erabakiak hartzeko prozedurak demokrazia esku-hartzaileago baten bidez bultzatzea.
2. Udal-kudeaketako programa eraginkorrak prestatzea, diseinutik hasi eta ebaluazio- eta ezartze-fasera arte.
3. Natura-ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaintzea, babestea eta bermatzea.
4. Baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztea eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak bultzatzea.
5. Hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izatea eta ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, osasun-, eta kultur-gaiak guztion onerako bideratzea.
6. Mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzea.
7. Herritarren osasuna eta ongizatea zaintzea eta areagotzea.
8. Tokiko ekonomia bizia bultzatzea eta enplegua sortzea ingurumenari kalte egin gabe.
9. Komunitate integratzaile eta solidarioak bermatzea.
10. Bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra, klima babestea eta antzeko helburuak direla eta dugun erantzukizun globala gure gain hartzea.

1.3. Tokiko Agenda 21 eta Eskola

Tokiko Agenda 21en parte hartzeak garapen iraunkorrarekin konprometitutako hezkuntza-praktika bat izateko aukera ederra eskaintzen die ikastetxeei, eta, horrela, bide bikaina zabaltzen die Eskolako Agenda 21i ekiteko



A

genda 21en eskainitako ekimenak garatzerakoan, maila asko egon daitezke: banakakoa, eskolakoa, tokikoa, eskualdekoa nahiz estatukoa eta nazioartekoa. Ekimen horiek ez dira modu bakartuan garatzen, talde sozialen arteko itunak sortuta baizik, hau da, beste herrikide batzuekin foroetan parte hartuta tokiko iraunkortasunaren alde. Aldi berean, aurrekoaz gainera, bakoitzari dagokion esparruan, alegia, etxean, enpresan, erakundeetan edo elkartean, ingurumena errespetatzen duten kontsumo-formak eta elkarrekin erabakiak hartu eta parte hartzeko prozesu demokratikoak ezarri behar dira.

Agenda 21ek dakartzan konpromisoak eta jarduerak nabarmen-nabarmenak dira ikastetxeetan, hortxe hartzen eta sendotzen baitira, neurri handi batean, ohiturak, jarrerak eta jokabideak. Izan ere, aztura eta jokabide horiek garapen iraunkorra eraikitzen bidera daitezke, ezinbestekoa da ikastetxeetan konfiantzazko

giroa izatea, hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien partaidetza indartzea, eta, giza eta ingurumen-arloei lotuta, gairik premiazkoenak aztertzen hasia ikastetxeari eta inguruari begira.

Tokiko Agendei esker, beraz, ikastetxeek parte hartzeko eremu zabala dute, eta, Eskolako Agenda 21en bidez iraunkortasunaren alde lan egiteko abagune ezin hobea eskaintzen diete. Gainera, Tokiko Agenden metodologia-prozesuak eta parte-hartzeko eremuak (iraunkortasunaren herritarren Foroak eta eskoletako udal Foroak) antzekoak dira.

Agenda biek informazioak eta ikerketa-esparruak konpartitzen dituzte (tokiko ekintza-planak eta eskolako ekintza-plana) eta bakoitzak bestearen parte-hartzeko eremuetan egoteko aukera du; modu horretan, bien bideak gurutzatu egiten dira. Izan ere, Eskolako Agenda 21 da iraunkortasuneko hezkuntza- eta prestakuntza-estrategia garrantzikoena, eta udalerrietako ekintza-planen lerro nagusietako bat bihurtzen ari da.




2

ESKOLAREN ORDUA

- 2.1. Zer da Eskolako Agenda 21?
- 2.2. Zertarako da Eskolako Agenda 21?
- 2.3. Nori hartzen du parte?
- 2.4. Norentzat da Eskolako Agenda 21?

Tokiko Agendak Planetaren leku askotan garatu dira bai udaletan zein eskualdeetan. Aukera bikaina zabaldu die ikastetxeei beren esparruan ez ezik inguru hurbilean ere (auzoan edota udalerrian) jarduteko, eta tokiko erabakitze-eremuetan parte hartzeko; modu horretan, eskoletako

iraunkortasunaren eta partaidetzaren esperientzia gizartera ireki da. Horren ondorioz, Eskolako Agenda 21ek hedapen handia izan dute estatuan nahiz nazioartean. Gaur egun milioika pertsona ari dira programa hori lantzen eta, beraz, Planetaren iraunkortasunaren alde egiten.



• Eskolako Agenda 21 munduan

Euskal Autonomia Erkidegoan 2003. urtean hasi zen Eskolako Agenda 21 garatzen eta urterik urte gero eta ikastetxe gehiago ari dira parte hartzen. Izan ere, 2007/2008 ikasturtean derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen erdiak baino gehiago aritu dira Eskolako Agenda 21 garatzen.

Hori dela eta, 2007. urtean UNESCOk iraunkortasuneko hezkuntzako jardunbide egokitzat hartu du Eskolako Agenda 21.

Hedapen eta eragin handia duen programa horren **oinarriko helburuak** honako hauek dira:

- Eskolaren iraunkortasuna eta kalitatea lortzeko balioez eta jokaenez hausnarketa eragin hezkuntza-komunitatean.
- Tokiko zein Planetako ingurumen-arazoak aurreikusteko eta ebazteko eta baliabideen erabilera arduratsua egiteko gai dinen herritar parte-hartzaileak hezi.
- Udalerriko erabaki-prozesuetan esku-hartzea bultzatu, Tokiko Agenda 21en parte hartuz.

• Eskolako Agenda 21 eta Euskal curriculumaren oinarrizko kompetentziak

DELORSEN TXOSTENA: HEZKUNTZAREN LAU ZUTABEAK	CURRICULUMAREN OINARRIZKO KONPETENTZIAK	ESKOLAKO AGENDA 21 ETA KONPETENTZIAK	ESKOLAKO AGENDA 21EN FASEAK
Ezagutzen ikasi	Zientzia, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.	Ingurumen diagnostikoak, ekintza planak –bereziki curriculumaren arloan– eta ebaluazioak ezagutza zientifikoa eskuratzea eta ingurune fisikoarekiko elkarreraginaz jabetzea ahalbidetzen dute. Halaber, ingurumena babesten, zaintzen eta hobetzen laguntzen dute, gizakion osasunaren eta bizi-kalitatearen nolakotasuna baldintzatzen duen elementua den aldetik.	Antolakuntza eta planifikazioa
	Ikasten ikasteko kompetentzia.	Planifikatzeko eta antolatzeko, diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko eta prozesuak eta emaitzak ebaluatzeko egokiak diren zenbait teknika erabiltzen dituzte ikasleek. Horrela, ikaskuntza autoerregulatzeko gaitasuna indartzen da, eta debateetan eta lankidetzan egiaztatze aukera sustatzen da.	
	Matematikarako kompetentzia.	Diagnostikoaren elaborazioak, adierazleen erabilerak eta emaitzen komunikazioak adierazpen matematikoak sortzea eskatzen dute: algoritmoak, taulak, eskalak, grafikoak, eskemak... Horiek ateak zabaltzen dizkie programaren garapenean agertzen diren egoera problematikoei lotutako kalkulari eta arrazonomendu logikoari eta espazialari.	Sentsibilizazioa eta motibazioa
Ekiten eta egiten ikasi	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.	Kompetentzia hau, bereziki, sentsibilizazio, diagnostiko eta komunikazio faseetan garatzen da. Informazioa kode, formatu eta hizkuntza ezberdinetan agertzen da, eta, horregatik, ulertzeko hainbat prozedura landu behar dira. Ordainagiri bat irakurtzeko, grafiko bat interpretatzeko, fenomeno bati behatzeko, edo iturri dokumental bat erabiltzeko bilaketarako, hautaketarako, antolaketakarako eta interpretaziorako zenbait prozedura erabili behar dira, eta horiek guztiak ikaskuntzaren lehenetsutako bat dira.	Diagnostikoa
	Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko kompetentzia.	Sentsibilizazio eta komunikazio faseak lagungarriak dira gero eta konplexuagoa den informazioa era egokian prozesatzeko eta kudeatzeko, arazo errealek ebazteko, erabakiak hartzeko, lankidetzan aritzeko eta ekolizpen arduratsu eta sortzaileak egiteko.	Ekintza Plana
Elkarbizitzen ikasi	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.	Programak laguntzen die pertsonen nortasunari eta bizikidetzaren positibo bat lantzeko, beste pertsona batzuekin ezarritako harremanei. Bestalde, horiek berdintasuneko genero-harremanen eta ikastetxean zein udalean parte-hartzea aktiboaren alde egiten du. Gainera, errealitate soziala eta ingurumen-arazoaren konplexutasuna hobeto ulertzeko balio du.	
	Izaten ikasi	Giza eta arte-kulturarako kompetentzia	
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako kompetentzia.		Zalantza moralak, gertaerak eta beste aukera batzuk aurkezteak ongi eraturako judizio moral pertsonalak eraikitzen laguntzen du; hau da, norberaren autonomia eta ekimena bultzatzen ditu, batez ere, erabakiak hartzeko eta ardurak bereganatzeko orduan.	

2.1. Zer da Eskolako Agenda 21?

EA21 ikastetxearen iraunkortasunerako eta kalitateterako hezkuntza-programa bat da. Komunitatearen partaidetzan oinarritzen da, eta udalerriko garapen iraunkorrean esku hartu eta laguntzen du



EA21 programaren oinarriak



uskal Autonomia Erkidegoko programak era askotako iturri eta erreferentziak izan ditu bere garapenerako, honako taula honetan ikus daitekeenez.

ESKOLAKO AGENDA 21			
<ul style="list-style-type: none"> • Agenda 21 • Tokiko Agenda 21 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia. • Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko Konpromisorantz, EAEn 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarritzko Hezkuntzarako Euskal Curriculuma • Delors Txostena 	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada 2005-2014 (Unesco)

• Eskolako Agenda 21en oinarriak

Programaren ezaugarriak

Ezaugarri asko ditu, eta, ondoren, garrantzizkoenak aipatzen dira:

- Programak bi eremu lantzen ditu: **eskola bera** (hortxe errotzen baita programa hau) eta **udalerria edo eskualdea**. Modu horretan, eskolaren eta herriaren arteko erlazioa indartu eta aberasten da.
- Programak hezkuntza-komunitatearen **partaidetza** du ardatz eta oinarri, eta ikasleen protagonismoa bilatzen du.
- Programak kudeaketa arduratsu eta iraunkorra sustatzen du, bai ikastetxean, bai udalerrian ere, baliabideak, erabilitako materialak, energia eta hondakinak modu egokian baliatzeko.
- Eskolako Agenda 21ek **curriculum-berrikuntza** eragiten du. Izan ere, hezkuntza-helburuen inguruko hausnarketa bultzatzen du eta ingurune hurbileko edukiak lantzen ditu. Era berean, diziplinartekotasuna, bizikidetzeta, elkarkidetzeta eta metodo berritzaileak indartzen ditu.
- Erkidegoan programarik **zabalduenetakoa** da, eta gainera, baliabide eta laguntza ugari ditu (ekonomikoak, aholkularitza, prestakuntza...).



· EA21ek lantzen dituen ardatzak edo esparruak

1 Ohikotasuna kontuan hartuz, curriculum-esparruari duena baino adiera estuagoa eman diogu, nahiz eta, izatez, beste esparru biak ere (partaidetza eta kudeaketa) bere barruan har ditzakeen.

Programaren potentzialtasunak

Potentzialtasun handiko programa da, bai jarraitzen duen hezkuntza- edo ingurumen filosofiagatik, bai udalerriekiko hartzen duen konpromisoagatik:

- Oso tresna eraginkorra da Euskal Curriculumaren oinarriko konpetentziak garatzeko, eta, beraz, XXI. mendeko herritar arduratsu eta konprometituak egiten laguntzeko. Ondorioz, mende honetako hezkuntza-erronkei aurre egiteko ahalmena dauka.
- Programak ikastetxearen arazoak konpontzeko eta hobekuntzak erdiesteko balio du, ikasleen elkarkidetzan, konpromisoan eta partaidetzan oinarritzen delako.
- Programak ikastetxea herrira hurbiltzeko gaitasuna du. Herriaren dimentsioa eta guztion ondasunaren ideia garatzeko aukera ematen du, eta udalerriko gizartearen eskolen hezkuntza-komunitatearen inplikazioa ahalbidetzen du.
- *Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)* dokumentuan jasotzen diren helmugak (kutsadurari aurre egitea, biodibertsitatea babestea, klima-aldaketaren eragina mugatzea...) lortzen laguntzeko bitarteko hobe zina izan daiteke Eskolako Agenda 21.
- Programak ikastetxean garatzen diren beste proiektuekin elkarlanean aritzeko ez ezik, denek elkargune izateko gaitasuna ere badu.



· Programaren garapena errazten duten baldintzak

2.2. Zertarako da Eskolako Agenda 21?

Hezkuntza-komunitateak Eskolako Agenda 21 programa lantzen du eskolaren iraunkortasuna eta kalitatea garatzeko eta sustatzeko, eta udalerriko garapen iraunkorrean laguntzeko

ngurumen-hezkuntza programa denez gero, –bakarka zein kolektiboki– arazoan konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da EA21en xede nagusia.

EA21 programarekin helburu hauek lortu nahi dira ikastetxeetan:

- Hezkuntza-komunitatean, tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizazioa eta ezagutza lantzea, iraunkortasunaren aldeko jarrerak eta konpromisoak eragiteko.
- Ikastetxe eta udalerriko ingurumen-arazoan konplexutasuna identifikatzea, aztertzea, alternatibak proposatzea eta Eskolen Udal Foroetan ezagutaraztea.
- Ikastetxe eta udalerriko iraunkortasuna lortzeko prozesuak abiatzea.

- Ikasleei beren ikasketetan, eskolan eta udalerraren bizitzan protagonismoa ematea.
- Udalerriko edo eskualdeko eskolen arteko laguntza bultzatzea, baita erakunde eta eskolen artekoa ere.
- Garapen iraunkorrek dakartzan eskakizunei erantzun ahal izateko curriculum egokitzea, diziplinartekotasuna sustatuz eta metodologia ikertzaileak eta parte-hartzaileak erabiliz.

Ikastetxe bakoitzak helburu horiek zehaztu eta egokitu beharko ditu bere ezaugarri eta interesen arabera.

Herriko edo eskualdeko ikastetxeekin batera aritzeko aukera eskaintzen du EA21ek

Eskolako Agenda 21 garatzeko Tolosako (Gipuzkoa) ikastetxeek 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan “Kalea bizi” gaia aukeratu zuten. Kaleko giro lasaia eta bizigarria berreskuratzeko helburuarekin herriko neska-mutilek kalea(n) bizi ahal izateko landa-lana eta proposamenak egin zituzten udalari helarazteko.

Egindakoaren adibide ona da aztertutako **Zumardiandia** eremua. Gune hori berritze-prozesuan zegoen eta, aztertu ondoren, ikasleek berrantolatze eta egokitzeko proposamenak egin zituzten.

Tolosako Tokiko Agenda 21ek proposamen horien berri izan zuen, eta, horregatik, Zumardiandiko berrikuntzarako proiektuaren lehiaketa publikoko baldintza-pleguk Eskolen Udal Foroan egindako proposamenak kontuan hartu behar zituztela erabaki zen.



2.3. Norik hartzen du parte?


Ikastetxeen, Eusko Jaurlaritzako bi sailen (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila) eta udalen arteko lankidetzan oinarritzen da Eskolako Agenda 21en garapena



Eusko Jaurlaritzak Eskolako Agenda 21 sustatzeko konpromiso argia hartu du *2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategian*. Horren arabera, 2012. urterako Erkidegoko derrigorrezko hezkuntzan aritzen diren ikastetxeen % 100 programa horretan egongo dira. Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lankidetzaren eremua zehazten da eta programaren garapenerako beharrezkoak diren giza baliabideak (Ingurugelaren aholkulariak,

programaren koordinatzaileak...) eta baliabide materialak (diru-laguntzak, material didaktikoak...) eskaintzen dira.

Eskolako Agenda 21 Tokiko Agenda 21en osagaia izanik udalen inplikazioa funtsezkoa da. Izan ere, udalek laguntza tekniko eskaintzen diete ikastetxei ingurumen-hezkuntzako enpresa bat kontratatuz, eta, gainera, bideak zabaltzen dizkiete tokiko arduradunen aurrean proposamenak egiteko eta konpromisoa hartzen dute proposamen horiei erantzun egokiak emateko.



· Eskolako Agenda 21en parte hartzen duten agenteen arteko harremanak

2.4. Norentzat da Eskolako Agenda 21?

Ikastetxea gune parte-hartzaile, plural, kritiko, osasuntsu eta iraunkor bilakatu eta udalerrian uztartu nahi duten guztiek parte har dezakete Eskolako Agenda 21en. Horregatik, programa bereziki hezkuntza-komunitate osoari zuzentzen zaio



Programan Eskolako estamentu guztiek dute beren tokia eta zeregina:

- Irakasleak programaren zuzentzaileak, dinamizatzaileak eta bideratzaileak dira, eta curriculumaren egokitzapenaren arduradun nagusi ere badira.
- Ikasleak benetako protagonistak dira eta erabaki-prozesuetan parte aktiboa izateko aukera dute. Ingurumen-arazo errealak aztertzen dituzte eta datuen bilketaz eta trataeraz arduratzen dira. Gainera, iraunkortasunaren ikuspuntutik hobetzeko konpromisoak hartzeaz gain, proposamenak egin eta Eskolen Udal Foroetan aurkezten dituzte.
- Familia lehenbiziko hezkuntza-eremua da eta gurasoak Hezkuntza-kunitateko partaideak dira. Horregatik, programan parte aktiboa izan behar dute, ikastetxean antolamenduan eta jardueretan arituz eta etxean eguneroko bizitzan eredu arduratsu eta iraunkorrak eskainiz.
- Langile ez-irakasleak programaren antolamenduan eta ingurumen-arazoen diagnostikoan eta kudeaketan eragile garrantzizkoak dira.



Ikastetxearen eta Udalerrriaren diagnostikoa egiteko eta hobetzeko proposamenak aurkezteko prozedura parte-hartzailea

Aretxabaletako (Gipuzkoa) Kurtzebarri Lehen Hezkuntza Ikastetxean 2005/2006 ikasturtean energiaren kontsumoaren inguruko diagnostikoa eta hobetzeko proposamenak egiteko prozedura parte-hartzailea erabili zen. Diagnostikoa egiteko lanak gelaka antolatu ziren eta datuen bilketa taldeka. Datuen tratamendua gela guztietan egin zen, eta, gainera, egoera hobetzeko proposamenak aurkeztu ziren.

Emaitzak etxetara eraman ziren, gurasoekin komentatzeko eta ekarpenak jasotzeko, bereziki, herriko diagnostikoari zegozkienak. Berniro gelan, ekarpen berriak landu ziren eta ikasleen asanbladan azaltzeko txostena prestatu eta adostu zen.

Egindakoari batasuna emateko eta etapa osoa inplikatzeko eskolako areto nagusian ikasleen asanblada egin zen. Bertan, ziklo bakoitzeko ikasle-talde batek, azaldu zizkien beste guztiei eurek egindako diagnostikoaren emaitzak, eta egoera hobetzeko onartutako proposamenak. Iritziak eta iradokizunak jaso ondoren, bozketa egin zen. Asanbladan onartutako proposamenekin txosten bat egin zen (ziklo bakoitzak berea) Eskolen Udal Foroan aurkezteko.



PROGRAMAREN GARAPENA

3

- 3.1. Nola hasten da Eskolako Agenda 21en prozesua?
- 3.2. Nola antolatzen da eskolan?
- 3.3. Zeren inguruan lanitzen da Eskolako Agenda 21?
- 3.4. Nola garatzen da?
- 3.5. Eskolako Agenda 21en komunikazioa eta ebaluazioa
- 3.6. Etorkizunari begira: balorazioa eta hausnarketa

3.1. Nola hasten da Eskolako Agenda 21en prozesua?

Eskolako Agenda 21 programan sartzeko gonbitea udalak egiten du eta erabakia ikastetxearen Ordezkarien Organo Gorenari dagokio



Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------



rograma garatzeko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdia zabaltzen dute eta diru-laguntzak ematen dituzte. Eskolak programan parte hartu ahal izateko, udalerrak Tokiko Agenda 21 garatzen egon behar du, eta prozesu horretan eskolak parte har dezan bultzatu behar du, Eskolako Agenda 21en sartzeko gonbitea eginda. Udalak, bere aldetik, Eskolako Agenda 21eko laguntza tekniko kontratatzeke konpromisoa hartzen du, baita ikastetxeek egiten dituzten proposamenak aintzat hartzeko eta ahal den neurrian gauzatzeko ere.

Bestalde, udalaren gonbitea jaso eta klaustroak programan sartzeko erabakia hartu ondoren, ikastetxeke ordezkarien organo gorenak hartzen du behin betiko erabakia.

Ikasturtearen lehenengo hiru hilabetean arestian aipatutako sailek, udalerriko alkateak eta

eskolako zuzendariak Eskola Agenda 21en lan egiteko hartzen duten konpromisoa adierazten dute hitzarmen bat sinatuz. Hitzarmen horrek eskatzen du, batetik, ingurumenarekiko erantzukizuna sustatzea, eta, bestetik, ingurumenaren egoera, balio demokratikoak eta ingurunearen iraunkortasuna apurka-apurka eta etengabe hobetzera zuzendutako neurriak hartzea.

Hitzarmenak aukera ematen dio ikastetxeari iraunkortasunarekiko duen ikuspegi konpartituaz hausnarketa egiteko. Ingurumen-hezkuntzan tradizioa duten ikastetxeetan ikuspegi komun horren isla Hezkuntza Proiektuan edota eguneroko funtzionamenduan nabaritzen da, baina kasu gehienetan ikuspegi hori garatzeke dago. Eskolako Agenda 21 programak atea zabaltzen ditu ikuspegi konpartitu hori sendotzeko, gaurkotzeko edota garatzeko.

• Eskolako Agenda 21 betetzeko konpromiso-akta

Hor dugu Garapen Jasangarrirako Euskal Estrategia (2002-2020), baita ingurumena gaiei buruzko Europar Batasunaren VI. Programa ere, eta Nazio Batuek Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren hamarkadatzat hartu du 2005-2015 aldia. Horiek direla-eta, administrazioei, hezkuntza-elkarteari eta herritarrei gomendatu eta eskatu egiten zaie garapen iraunkorra lortzeko itunak egitea eta erantzukizuna hartzea.

Deklarazio hori sinatuta, argi eta garbi onartzen dugu garrantzizkoa eta ezinbestekoa dela baliabide naturalak eta biodibertsitatea zaintzea, biztanleriaren bizi-kalitatea ziurtatzea eta herritarrek garapen iraunkorrerako gaitzea.

Onartzen dugu, era berean, Euskal Herriko gazteek eta haurrek euren hiriari eta garapen iraunkorrari buruz gauza asko dituztela esateko, baita ekarpenak egiteko ere. Horregatik bultzatzen dugu Eskola Agenda 21, ikasleak euren ikastetxearen eta udalerraren ingurumen-kalitatean eragina duten arazoetan parte hartzen, erabakiak hartzen eta inplikatzeko ohitzea helburu duen programa delako.

Jendaurrean adierazten dugu Eskola Agenda 21en alde gogoz lan egiteko hartu dugun konpromisoa. Horrek eskatzen du ingurumenarekiko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenarekin lotuta betebeharrak betetzea eta ingurumenaren egoera, balio demokratikoak eta gure ingurunearen iraunkortasuna arian-arian eta etengabe hobetzera zuzendutako neurriak hartzea.

KONPROMISOAK

- **Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak** Ingurugela zentroen bitartez, aholkularitza didaktikoa ziurtatuko du, ikasmaterialak emango ditu, eta parte hartzen duten irakasleen prestakuntzan lagunduko du. Diru-laguntzak eskainiko ditu ikastetxeentzat urteroko deialdien bitartez eta udalekin edo

mankomunitateekin sinatu beharreko hitzarmenen bidez.

- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak** Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lehentasunezko programatzat tratatzea bermatuko du. Horretarako, irakasleen laneko esparrua eta ordutegia Eskola Agenda 21 programaren koordinazio- eta berrikuntza-eskakizunetara egokitzeko bidea emango du.
- **Udalek eta mankomunitateek** Tokiko Agenda 21 programaren zatitzat hartuko dute Eskola Agenda 21. Eskolako partaidetza-Foro bat ezarri eta sustatuko dute, hiri-ingurumena aztertzeko eta ikastetxeen proposamenak jasotzeko. Kanpoko aholkularitza baten edo laguntza-enpresa baten bitartez proposamenei erantzun eta ikastetxei lagunduko diete.
- **Ikastetxeek** Eskola Agenda 21 programaren proiektua lantzeko eta, curriculum- eta hezkuntza-proiektuetan barne hartuta, haren Filosofia eta metodologiari jarraituz abiarazteko konpromisoa hartuko dute. Ikastetxeko ingurumen-batzordeak eratu eta proiektuaren arduradunak izendatuko dituzte. Garapen-prozesua bultzatu eta lortutako emaitzak ebaluatuko dituzte. Gainera, urteko emaitzak eskola- eta udal-elkarteari jakinaraziko dizkiote.

Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren alde

_____n, 200__ko _____ren ___an

Ikastetxeko zuzendaria

Alkatea

Ingurumen eta Lurralde Antolamendua sailburua

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

3.2. Nola antolatzen da eskolara?

Eskolako Agenda 21 programa lantzeko beharrezkoa da antolakuntza berezi bat. Edozein modutan ere, antolakuntza horrek eskolak duen egituran txertatuta egon behar du



kastetxeak koordinatzaile bat aukeratu behar du. Berari dagokio proiektua martxan ipintzea eta jarraipenaren ardura nagusia izatea. Horretarako behar duen prestakuntza eta aholkularitza Ingurugelak emango dio. Koordinatzailearen lanerako eta, oro har, Agendaren garapen egokirako ezinbestekoa da zuzendaritza-taldearen inplikazio zuzena.

Eskolako Agenda 21erako lan-taldeak ikastetxean

Esperientzien arabera, hainbat lan-talde era daitezke; hala ere, ondoren aipatzen direnak programaren garapenerako garrantzizkoenak dira. Ingurumen Batzordea eta Talde sustatzailea ezinbestekotzat jotzen dira.

Ingurumen Batzordea

Ikastetxean hezkuntza-komunitateak parte hartzeko organoa da. Horregatik, irakasleek, langile ez-irakasleek, familiek eta, batez ere, ikastetxeko ikasleek parte hartzen dute. Interesgarria izan liteke udalaren edota giza talderen baten ordezkariak ere parte hartzea.

Ingurumen Batzordearen zeregin nagusiak honako hauek dira:

- Proiektua planifikatzea (kronograma...) eta diagnostikoaren oinarriak finkatzea.
- Ekintza Planerako proposamenak egitea eta konpromisoak adostea.
- Ekintza Plana onartzea.
- Ebaluazioa egitea eta proiektuaren jarraipenerako mekanismoak zehaztea.

Gutxienez hiru hilean behin biltzen da.

Talde sustatzailea

Talde hau irakasleek osatzen dute, eta bere zeregin nagusiak eguneroko dinamizazioa eta antolakuntza ditu. Ingurumen Batzordearen eta tutoreen arteko zubi-lana egiteaz gain, proiektuaren garapenerako eratzen diren komisioen jarraipena ere egiten du.

Egokiena izango litzateke koordinatzailea, zuzendaritzaren ordezkari bat, orientatzailea edo kontsultorea eta etapa bakoitzeko irakasle batzuk egotea.

Hamabostean behin-edo biltzen da.

Komisioak

Lanak errazteko, partaidetza bultzatzeko eta erantzukizuna garatzeko, komeni da hainbat komisio egitea. Batzorde horietako partaide nagusiak ikasleak dira, eta dituzten arduren arabera itxura bat baino gehiago har ditzakete (Patruila Berdea, Komite Txikia, Geletako eko-ordezkariak...). Beharrianen arabera biltzen dira. Komisio horiek osatzen direnean, sustatu beharko litzateke neska-mutilen arteko parekotasuna.

Programa garatu ahala ikastetxeen ekimenez zenbait komisio eratu dira; adibidez:

- Eko-ordezkariek: EA21 garatzeko ikasleen ordezkariak dira (ikasgelako bana edo bina). Beraien gelako ingurumen-arduradunak dira. Euren artean aukeratzen dira Ingurumen Batzordera joango direnak, eta batzorde horren eta gelen arteko zubi-lana egiten dute.
- Komite Txikia: Agendaren koordinatzaileak eta maila bakoitzeko ikasle banak osatzen dute. Proposamenak egiten ditu eta geletan eztabaidatu ondoren, erabakitakoa martxan ipintzen du.
- Patruila Berdeak: Eskolako errebisioa egiteko txandaka jarduten duten ikasleen taldeak dira (diagnostikorako datuak hartzeko, onartutako konpromisoen jarraipena egiteko...).

Erskolako Agenda 21erako lan-taldeak beste ikastetxe batzuekin**Koordinazio-bilerak**

Udalerriko edo eskualdeko ikastetxeen arteko lankidetzak gunea dira. Bertan programaren koordinatzaileak biltzen dira, Ingurugelaren aholkularitza dute eta EA21 programako udal-teknikariek edota kontratatutako enpresetako ingurumen-hezitzaileek parte hartzen dute. Hilean behin-edo biltzen dira.

Erskolen arteko Foroak

Udalerriko edo eskualde bateko ikastetxeetako ikasleek osatutako organoa da eskuarki. Normalean, Eskolen Udal Foroak prestatzeko egiten dira.

Erskolen Udal Foroak

Foro honetan ikasleek ikasturtean egindako lanaren emaitzak, konpromisoak eta proposamenak tokiko arduradunen aurrean (alkatea, zinegotziak...) aurkezten dituzte.

Santurtziko eskolen arteko Foroak**Gaia: hondakinak**

Santurtziko Eskolen arteko lehen Foroak egin zen herriko Itsas Etxean 2006. urteko maiatzaren 17an. Foro horretara ikastetxe bakoitzeko bi ikasle, Agendaren bi koordinatzaile, Ingurugelako aholkulari bat eta udaletxeko kultur teknikaria bildu ziren.


Bileraren xedea zen herriko garbitasunari eta hiri-aldizarien kontserbazioari buruz diagnostikoa egitea. Horretarako, gune edo puntu beltzak detektatzen saiatu ziren. Ikastetxeen ordezkariak aurrez detektatutako bost gune beltz ekarri zituzten, eta jarraian eztabaidatu eta zerrenda bat adostu zuten. Gune beltzak hamalau kategoriatan sailkatu zituzten. Kategoriatan horien garrantzia ordezkariak emandako botoen bidez erabaki zen (ordezkari bakoitzak hiru boto zituen).

Puntu beltzen kategoriatan bozkatuenak hauek izan ziren: hiri-aldizaria egoera txarrean (9), suntsiketak eta pintadak (8), berdeguneetan zikinkeria (6), kaleetan zikinkeria (4), mugikortasunerako eragozpenak (3), gune naturaletan eta portuan kutsadura (3), ontzien urritasuna, bilketaren arazoak (2), udal-lokalen Falta (Kabiezes auzoko liburutegirako lokalak) (1). Ekarririk gabe gainontzekoek ez zuten botorik jaso: ontzitik kanpo hondakinak, kontsumo arduratsuen Falta...

Boto gehien jaso zuten seiak ikastetxeetara eman ziren, bertan konpromisoak eta soluziobideak bilatzeko eta amaieran Eskolen Udal Foroan aurkezteko.

Azkenez, udaletxeko kultur teknikariak denon parte-hartzea eskertu zuen, eta EA21 proiektuarekin jarraitzeko animuak eman zizkien guztiei.

· Eskolako Agenda 21en antolakuntza ikastetxean



Parte hartzen dute:

Informazioa eta proposamenak:

3.3. Zeren inguruan lantzen da Eskolako Agenda 21?

Eskolako Agenda 21 ingurumen gai edo arazo baten inguruan garatzen da, eta, horretarako, programaren helburuak ditu oinarri eta erreferentzia

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------




rogramaren helburuak lortzeko, aukeratutako gaiaren trataerak ingurumenaren ikuspegi globala izan behar du kontuan, hau da, ingurumena bere konplexutasun osoan hartu behar du, ingurune naturala zein sozio-ekonomikoa landuz.

Erkolako Agenda lantzeko gai nagusia aukeratzen da

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken urteotan, gehien landu diren gaiak *hondakinak, ura, energia...* izan badira ere beste gai batzuek tarte esanguratsua izan dute; adibidez, *mugikortasuna, kalea bizi, aztarna ekologikoa, kontsumoa, biodibertsitatea...*

Dena den, kontuan hartu behar da, programak arrakasta izateko, garrantzikoena dela zer lortu nahi den argi edukitzea; baita horretarako nolako prozesua abiatzen den ere. Zentzu horretan, ulertu behar da gaia ez dela gako nagusia, baizik eta adostutako helburuak lortzeko bitarteko bat.



· Eskolako Agenda 21en lan daitezkeen gaiak

Erdigunekoak gai zabalak dira eta hainbat ikuspuntutatik jarduteko aukera ematen dute. Inguruan agertzen diren zenbait gai zehatzagoak dira eta, horietatik dira normalean ikastetxeetan hautatzen direnak.


Gaiaren garapenerako ardatzak edo esparruak

Gaiaren garapena honako hiru ardatz edo esparru hauen inguruan egiten da:

1. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza.
 2. Kudeaketa iraunkorra.
 3. Eskolako curriculum-berrikuntza.
1. Hezkuntza-komunitatearen **partaidetza**, bereziki ikasleena, Iraunkortasuneko Hezkuntzaren funtsezko ezaugarria da; izan ere, horren bitartez ingurumen-arazoaren konponketaz arduratzen diren eta gizarte demokratikoetan parte aktiboa hartzen duten herritarrak hezten dira. Hori dela eta, ikasleek elkarri eragin behar diote beren komunitateetan, eta garatu behar dituzte parte-hartzeko eta ardurak konpartitzeko trebetasunak.
- Nortasunaren garapen egokiak, autoestimu indartsuak eta besteen iritziak eta sentimenduak aintzat hartzeko gaitasunak sustatzen dute parte-hartzeko kompetentzia hori. Izan ere, inguru sozialaren ulermenaren eta norberarenaren arteko elkarreaginean garatzen da nortasuna; eta, bestalde, autoestimua oso lotuta dago klase sozial edota kultura zehatz baten partaide izatearen ondoriozko sentimenduekin.

• Hart-en eskailera

“Hart-en eskailera” partaidetza-maila neurtzeko tresna egokia da. Bertan, zortzi partaidetza-era zehazten dira eta, horrela, esparru honetan egin diren jarduerak baloratzeko balio du.



Hart-en eskailera

(Partaidetza-mailak letra larriz zehazten dira, eta bakoitzari buruzko adibidea letra xehez azaltzen da.)

Azpiko hiru mailak ez omen dira egiazko partaidetza.

2. Lantzen den gaiaren edo ingurumen-arazoaren **kudeaketak** ikastetxean zein udalerrian kudeaketa arduratsu eta iraunkorraren esperientzia praktikoa eta errealitate egitea ahalbidetzen du, eta, gainera, “Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020” izenekoan zehazten diren helmugak lortzen laguntzen du.

Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiaren helmugak	Eskolako Agenda 21en gaiak
1. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea.	Airearen kutsadura, uraren kutsadura, baliabide naturalak.
2. Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.	Baliabide naturalak, kontsumo-ohiturak, ekonomia, globalizazioa, energia, aztarna ekologikoa, hondakinak.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.	Biodibertsitatea, elikagaiak, baliabide naturalak.
4. Lurraldeko oreka eta mugikortasuna.	Garraioa eta mugikortasuna, hirigintza, eskola eta herria, aisia.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.	Klima-aldaketa, energia, kontsumo-ohiturak.

Gainera, komeni da aztertzen diren gaiak udalerriko Ekintza Planetan lantzen direnekin bat etortzea; horrela, Eskolako eta Tokiko Agenden arteko lotura indartzen da.

3. **Curriculum berrikuntzak** ingurumen-arazoez hausnarketarako eta ikerketarako eremua irekitzen du, eta, horretarako, diziplinartekotasuna, bizikidetzak eta metodo berritzaileak sustatzen ditu.

Eskolako Agenda 21ek curriculum-berrikuntza bultzatzen du, ezaguerak testuinguru ezberdinetan eta aldakortasun handiko balditzetan lantzea ahalbidetzen baitu; horregatik, bide ezin hobea da beharrezko aldaketen aurrean sormenaz eta modu berritzailez erantzuteko.

Izan ere, oinarrizko konpetentziak garatzeko estrategiak topatzeak aukera ematen die irakasleei hainbat arloren inguruko hausnarketa egiteko: beren hezkuntza-praktikari buruz, aspektu metodologikoei eta teorikoei buruz, helburuei eta edukiei buruz, horien hautaketari eta sekuentziazioari buruz, beste irakasleekin eta beste proiektuekin duten koordinazioari buruz...Eta ikasleei beren ikasketak integratzeko, beste batzuekin erlazionatzeko eta ezagutza horiek egoera eta testuinguru ezberdinetan erabiltzeko.


Modu horretan, hezkuntzaren oinarrizko erronkei (erantzukizuna, arduaren banaketa, begirunea, arazoaren konponketarako trebakuntza...) erantzuteko aukera ematen du, eta, beraz, ikastetxeko bizikidetzan eta hobekuntzan eragin positiboa izan dezake.

EUSKAL CURRÍCULUMAREN OINARRIZKO KONPETENTZIAK

1. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia.
2. Ikasten ikasteko konpetentzia.
3. Matematikarako konpetentzia.
4. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia.
6. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
7. Giza eta arte-kulturarako konpetentzia.
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia.

3.4. Nola garatzen da?

Hainbat herritako Eskolako Agenda 21en metodologia aztertzean, oro har, oinarri bera adierazten duten zenbait **fase** bereiz daitezkeela ikusten da



rograma garatzeko bost fase nagusi bereizten dira. Kronologikoki begiratuta, lehenengoa **Antolamendua eta Planifikazioa** da; bigarrena, **Sentsibilizazioa eta Motibazioa**; hirugarrena, **Diagnostikoa** eta laugarrena, **Ekintza-plana**. Amaitzeko, berezia den bosgarren fasea dago. Berezia, prozesu osoan zehar egiten delako eta **Komunikazioa eta Ebaluazioa** izaeraz eta ezaugarri ezberdinak direlako.



· Eskolako Agenda 21en proiektuaren Paseak

Ikastetxeen egoerak eta esperientziak oso ezberdinak dira; horregatik komeni da, metodologia bakarrean oinarritu arren, bakoitzak bere ibilbidearen nondik norakoak definitzea. Izan ere, programaren helmugak zeintzuk diren argi izatea bezain garrantzizkoa da ondo zehaztea zein den ikastetxearen abiapuntua, eta horren arabera, Eskolako Agenda 21 garatzeko proposatzen diren faseen kronologia, iraupena, erritmoak eta egiteko erak egokitzea.

Partaidetza da programaren erroa, oinarria eta ikurra, baina partaidetza hori ez da berez lortzen; sustatu eta ahalbidetu egin behar da fase guztietan. Horretarako, oso lagungarria da ikastetxeak estamentu bakoitzak Eskolako Agendan izan behar duen papera edo funtzioa definitzea. Programaren garapenak kultura parte-hartzailea indartu behar du, eta ateak zabaltu behar dizkie estamentu guztiei, ikastetxeko zein udalerriko erabaki-prozesuetan parte hartu ahal izateko.

Antolamendua eta planifikazioa

Programak estamentu guztiak mugiarazi nahi baditu, eta behar diren faseak garatu nahi baditu, lehenbiziko lana azpiegitura bat eratzea da.

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------

(Egutegi-proposamen hau eta gainerako Faseetan agertzen direnak adibideak baino ez dira).

Fase honetan, antolamenduaren oinarriak (koordinatzailea, talde sustatzailea, horientzako ordutegiaren egokitzea...) eta hasierako planifikazioa zehaztu behar dira (behin-behineko kronograma egin; hurrengo fasearen egitama prestatu...).

Komeni da antolamenduaren oinarriak aurreko ikasturtearen amaieran finkatzen hasia. Adibidez, oso egokia da, talde sustatzaileak programan duen funtzio dinamizatzailea behar bezala egiteko,

ordutegian denbora komuna izatea (koordinazio-bilerak errazteko); eta, noski, hori askoz hobeto lor daiteke ikastetxearen ordutegiak egin barik dauden bitartean proposatzen baldin bada.

Ingurumen Batzordea eratu barik baldin badago, hasierako planifikazioa talde sustatzaileari dagokio; eta planifikazio horrek programa garatzeko ildo orokorren behin-behineko zehaztapena eta denboralizazioa eskatzen du.

KRONOGRAMA		2007						2008						
FASEAK		6	7	8	9	10	11	12	1	2	3	4	5	6
1. Antolamendua eta planifikazioa	Talde sustatzailearen eraketa	X												
	Ingurumen Batzordearen eraketa					X								
2. Sentsibilizazioa eta motibazioa					X	X	X							
3. Diagnostikoa	Diagnostikoaren planifikazioa eta aplikazioa (ikastetxea, udalerrria)						Xi	Xi	Xu	Xu				
	Diagnostikoaren ondorioak eta lehentasunak								Xi	Xu				
4. Ekintza Plana	Helburuak eta adierazleak								X	X				
	Ekintza-planaren elaborazioa								X	X				
	Ekintza-planaren aplikazioa									X	X	X		
5. Komunikazioa eta ebaluazioa	Eskolen arteko Foroak							X					X	
	Eskolen Udal Foroak							X					X	
	Komunikazioa					X			X		X		X	X
	Ebaluazioa									Xh			Xe	Xa

Xi: ikastetxearen diagnostikoa; Xu: udalerraren diagnostikoa; Xh: hasierako ebaluazioa; Xe: ekintza-planaren ebaluazioa; Xa: amaierako ebaluazioa

Sentsibilizazioa eta motibazioa

Fase hau behar-beharrezkoa da hezkuntza-komunitatearen partaidetza lortzeko.

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	---------------	--------------	---------------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------

EA21 hezkuntza-komunitatearen partaidetzan oinarritzen den programa da, eta, beraz, eskolako estamentuak motibatze bideak zabaltzea behar dira. Motibazioa giza jarduerak sustatzen dituen indarra da, bai helburu bat lortzeko, bai beharizan bat betetzeko.

Sentsibilizazio-jardueren bitartez motibazioa eragin daiteke. Modu horretan esnaraz daitezke sentimenduak, emozioak, estimuak... eta, zergatik ez, ingurumen-arazoezko norberaren erantzukizunak ere. Hori dela eta, sentsibilizazioa funtsezko lehen mugarrria da eta garatzeko komeni da Plan edo Egitamu berezia egitea, non estamentu guztiei zuzendutako ekintzak eta horien arduradunak azaltzen diren.

Asko dira erabil daitezkeen sentsibilizatze erak:

- Eskolako Agenda 21 programaren aurkezpena, estamentuka, hainbat baliabide erabiliz (Ingurugelak egindako Eskolako Agenda 21 CD-a, aurkezpen digitalak, gutunak...).
- Eskolako Agenda 21en eguna: Habitataren Mundu Egunean (urriko lehen astelehena) egiten da. Programa martxan jartzeko edo berrartzeko eguna da, eta ikastetxe osoan, egun eta ordu berean, gela guztietan, Eskolako Agenda 21i eta iraunkortasunari buruzko eztabaidak eta gogoetak egiten dira. Horretarako honelako ekintzak egin daitezke:
 - a) Saillburuek, alkateek eta zuzendariak sinatzen duten **hitzarmena** eta konpromisoak irakurri.
 - b) Ingurumen-gaiez arduratzeko **boluntarioak** eskatu.
 - c) **Gela-hitzarmenaren** ideia zabaltzea.

Bestalde, eguna beste ekintza batzuk egiteko erabil daitezke: Txoko Berdeari hasiera eman, lema-, maskota- edo logotipo- txapelketa antolatu, Eskolako Agenda 21i buruzko bertso-txapelketa egin...
- Proiektuaren aurkezpen-gutuna ikastetxeko estamentuei (ikasleak, gurasoak, irakasleak...) zuzenduta.
- Txoko Berdea. Programaz inFormatzeko, komunikatzeko eta sentsibilizatze gune berezia. Gainera, iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiak (berriak, artikuluak, iritziak...) ipintzen dira.
- Iradokizunak jasotzeko gutunontzia.
- Programaren maskotaren aukeraketa eta aurkezpena.
- Agenda garatzeko aukeratu den gaiari buruzko erakusketa.
- Gaiari buruzko kartel- eta argazki-lehiaketak.
- Gaia aurkezteko eta hausnarketa eragiteko: berariazko filmak eta dokumentalak, argazki esanguratsuak, kartelak, jokoak, ingurumenarekiko jarrerari buruzko inkestak, galdetegiak, hitzaldiak adituekin, mahai-inguruak, interak...
- Programaren aurkezpen-festa.



SENTEBILIZATZEKO EKINTZAK ELGOIBAR BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUAN (GIPUZKOA)

2005-2006 ikasturtean, Eskolako Agenda 21 programan uraren gaia landu zen. Lehendabiziko lana hezkuntza-komunitate osoari zuzenduriko sentsibilizazio-kanpaina bat bideratzea izan zen. Bi alderdi aztertu ziren: alde batetik, uraren eskuragarritasuna, eta, bestetik, uraren kalitatea.

Lehen hiruhilabetean, kartel-lehiaketa bat antolatu zen: “Ura premiazkoa baina urria” leloa oinarritzat hartuz, ikasleek edozein motatako muntaiak egin zitzaizketen, betiere, oinean esaldi adierazgarriren bat jarrita.

Lehiaketak arrakasta izan zezan, eskolan oso harrera ona duen San Joan Bosco Pestarekin lotu zen. Egun horretarako, ikastetxeko gela arteko lehiaketak antolatzen dira hainbat arlotan (sokatira, Futbola, antzerkia, olerkiak...) eta azkenean, punturik gehien lortzen duen gelak egun bateko txangoa izaten du. Modu horretan, kartel-lehiaketan parte-hartze handia lortu zen. Gero kartel guztiakin erakusketa bat jarri zen ikastetxea osatzen duten bi eraikinetako sarreretan.

Halaber, eta sentsibilizazioarekin jarraituz, ekimen gehiago egin ziren:

- Hainbat hizkuntzatan, (euskara, gaztelania, ingelesa, Frantsesa eta alemana) uraren erabileraren inguruko esaldiak eta aholkuak idatzi zituzten ikasleek. Esaldiekin aurkezpen digitalak prestatu zituzten.
- Argazki-lehiaketa bat ere antolatu zen.
- Uraren Egunean ikasleek sorturiko material horrekin guztiarekin, erakusketa bat egin zen.



Diagnostikoa

Fase honek ikastetxearen hasierako argazkia edo irudia edukitzeko balio du, hau da, hasierako ebaluazioa egiteko. Gainera, udalerrriaren egoeraren azterketa egiteko une aproposa da. Bestalde, estamentuen partaidetza sustatzeko ere oso egokia da. Diagnostikoaren diseinua, normalean, Ingurumen Batzordeari edota Talde Sustatzaileari dagokie.

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------

Diagnostikoaren bitartez, ikastetxearen benetako abiapuntua zein den zehaztu nahi da, eta hori lortzeko honako arlo hauetan egiten da azterketa:

- **Partaidetzari** dagokionez, hezkuntza-komunitateko estamentuek parte hartzeko dituzten tradizioen, bideen, erakundeen, ... erradiografia egiten da.
- Aukeratutako gaiaren inguruko **kudeaketaren** egoera zertan den argitzen da; adibidez, kontsumoak, instalazioen egoera, ohiturak...
- Gai horrek **curriculumean** nolako isla, trataera, espazio eta denbora, baliabideak dituen... zehazten da, eta horien inguruko hausnarketa sustatzen da. Diagnostikoaren atal hau irakasleek lantzen dute arloka edo sailka.

Horrela, besteak beste, egoeraren sendotasunak eta ahuleziak detektatzeaz gain, egon daitezkeen arazoak eta beharizanak identifikatzen dira, hurrengo fasearen plangintzarako behar diren oinarri sendoak finkatzeko.

Diagnostikoa egiteko baliabide eta tresna ugari daude: AMSA (ahuleziak, mehatxuak, sendotasunak eta aukerak), behaketa-
taulak, kontrol-zerrendak, kontzeptu-
mapak, galdetegiak, inkestak, elkarrizketak,
ibilbideak gertuko inguruetik, planoak,
argazkiak...

Komeni da, diagnostikoarekin hasteko, AMSA erabiltzea, ikuspegi orokorra eman baitezake.

Kudeaketaren kasuan, tresna egokia da ikastetxearen *aztarna ekologikoa*, arlo horren egoerari buruzko informazio orokorra ematen baitu.

Diagnostikoa ez da soilik ikastetxera mugatzen, Eskolako Agenda 21ek tokiko komunitatean parte hartzen baitu. Izan ere, tokiko diagnostikoak aukera ematen du udalerriko iraunkortasunaren aldeko proposamenak egiteko.

ENERGIARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA COLEGIO BASAURI-COOPERATIVA DE ENSEÑANZA (BIZKAIA) IKASTETXEAN

Ingurumen Batzordea arduratu da diagnostikoaren plangintza egiteaz eta Eskolako Agenda 21eko gainerako Faseez, galdesortak, metodoak eta ordutegiak diseinatu edota egokitzeko eskola-orduetan biltzen diren taldeek lagunduta. Diagnostikoak Agendaren hiru lan-esparruak barne hartu ditu, alegia, curriculum-berrikuntza, partaidetza eta energiaren kudeaketa. Baina deskribapena egiteko, berrikuntzan eta kudeaketan oinarrituko gara.

Curriculum-berrikuntzari buruzko diagnostikoa

- 2004-05 ikasturtean galdesorta bat banatu genuen irakasleen artean, arlo eta maila bakoitzean "Energia" gaia agertzen den moduari buruzko datuak biltzeko. Agenda 21eko koordinatzaileak kalkulu-orri batean bildu zituen emaitzak. Energiaren gaia arloetan eta mailetan agertzen den proportzioa aztertu genuen eta konparazio-taula bat landu genuen, emaitzak grafikoetan erakusten zituena.
- Hurrengo ikasturtearen hasieran antzeko galdesorta bat banatu genuen aukeratutako gainako "Mugikortasuna eta garraioa", baina energiaren gainako, aurreko ikasturtean unitate didaktikoetan gehitutako edo aldatutako elementu guztiak zehaztuz. Datu horiek 2004-05 ikasturteko tauletan gehitu genituen eta lortutakoa erakusteko konparazio bat egin genuen.

Energiaren kudeaketa iraunkorrari buruzko diagnostikoa

- Hiru eremutan egin genuen diagnostikoa:
 - Ikastetxearen hasierako diagnostikoa. Boluntarioz osatutako lau taldek ikastetxe osoari dagozkion datuak bildu zituzten.
 - Ikasgelaren hasierako diagnostikoa. Ikasgela bakoitzeko eko-ordezkariek tutorearekin eta euren taldearekin ikasgela bakoitzaren ezaugarri finkoei buruzko datuak bildu zituzten.
 - Aldizkako diagnostikoa. Talde bakoitzeko ingurumen-ordezkariek bi alditan jaso zituzten datuak (2004ko abenduan eta 2005eko urtarrilean). Diagnostikoa ikasgela guztietan egin zuten eta parametro aldakorrak neurtu zituzten egunean zehar eta zenbait egun. Lortutako datuak kalkulu-orri batean bildu zituzten. 2005-2006 ikasturteko antzeko datetan errepikatu zuten prozesua, berrin ere aldizkako diagnostikoa egiteko galdesorta erabiliz.
- Bildutako datuekin informatika-gelako ikasleek laburpen-taulak eta konparazio-grafikoak egin zituzten, bi ikasturteetan aztertutako aldagaiak aditzera ematen zituztenak (tenperatura, argiztapena, atea, gortinak...).
- Lortutako datuak ikasleekin, irakasleekin eta Ingurumen Batzordearekin egindako bileretan aztertu eta ondorioak atera zituzten.
- Azkenik, taula, grafiko eta gainerako datu guztiekin aurkezpen digital bat egin zuten emaitza interesgarrienak laburbiltzeko, eta ondoren ikastetxeko hezkuntza-komunitateari aurkezteko.

Ekintza Plana

Fase honetan definitzen eta planifikatzen da ikastetxea eta haren inguru hurbila iraunkorrago egiteko ekintzen multzoa.

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------



Diagnostikoan ateratako ondorioetan oinarrituta, proiektua garatzeko **hobekuntza-helburuak** eta horiek lortzeko **ekintzak** zehazten dira Ekintza Plan batean. Horren barruan ere, ipinitako helburuen lortpen-maila ikusteko **adierazle** batzuk azaltzen dira.

- **Hobekuntza-helburuak** finkatzeko, garrantzizkoa da diagnostikoan atzemandako beharrianak edota arazoak ordenatzea irizpide batzuen arabera (arazoen larritasuna, arazoaren premia, hezkuntza-komunitatean sortzen duten interesa...), hau da, lehentasunak erabakitzea. Helburu horiek *partaidetza*, *kudeaketa iraunkorra* eta *curriculum-berrikuntza* esparruen arabera izan behar dute. Bestalde, helburu bakoitzari dagozkion adierazleak eta proposatzen diren ekintzak atxikitzen zaizkio.

Hobekuntza-helburuek hurbilak, neurgarriak eta lortzeko modukoak izan behar dute. Hori dela eta, orokorregiak direnean, komeni da **hobekuntza-helburu zehatzak** adieraztea.

- **Adierazleak** tresna egokiak dira balioztatzen proiektua norabide onean doan eta helburuak noraino lortzen diren. Adierazleek, onak izateko, informazio esanguratsua eman behar dute, eta gainera, ulergarriak, neurgarriak eta proiektuarekiko nabarmenak izan behar dute. 3.e “EA21en komunikazio eta ebaluazioa” atalean adierazleen zenbait adibide azaltzen dira.
- **Ekintzak** helburuak lortzeko burutzen diren ekimenak dira. Mota askotakoak izan daitezke, eta adibideak ugari dira. Horien artean, ahal den neurrian, komeni da ekimen nagusi bat (biodibertsitatearen astea, kultura arteko astea...) diseinatzea ikasturtean zehar egindakoa biltzeko eta erakusteko, guztien ahaleginak koordinatzeko eta zentralizatzeko eta eragile guztiek parte har dezaten bideratzeko.

Behin Ekintza Plana diseinatuz gero, normalean Ingurumen Batzordeak onartzen du, eta jarraian aplikatzen hasten da.

ARANGOITI LHI (BILBO) IKASTETXEAN 2005/2006 IKASTURTEAN EGINDAKO HONDAKINEI BURUZKO EKINTZA PLANA

Ikastetxearen diagnostikoa egin ondoren **hobekuntza-helburu** batzuk finkatu genituen arlo guztietan, baita lor daitezkeen **ebaluazio-adierazleak** eta helburuak betetzeko **ekintzak** ere.

Kudeaketa iraunkorra:

- Helburua: hondakin plastikoen gaikako bilketa ikastetxe osoan (patioetan eta geletan) egitea.
- Adierazlea: bildutako hondakin plastikoen kopurua (kilogramotan).
- Ekintzak:
 - Hiru edukiontzi hori jarri ziren patioan eta beste bi ikastetxean.
 - Aipatu edukiontziak ezagutzera emateko eta erabiltzeko kanpainak eta jokoak egin ziren.
 - Gai honi buruz prentsan agertzen ziren berriak erabili ziren Txoko Berdean ipintzeko.

Partaidetza:

- Helburua: areagotzea ikasleen eta Familien partaidetza.
- Adierazleak:
 - Ingurumen Batzordearen bileren kopurua.
 - Patruila Berdeen kopurua.
 - Zenbait ekintzatan parte hartu duten ikasleen eta gurasoen kopurua.
- Ekintzak:
 - Ingurumen Batzordeak hiru bilera egin zituen.
 - Hiru Patruila Berde antolatu ziren.
 - Ikasleek maskota bat aukeratu zuten bozketa bidez.
 - Ikasgelako paperontzien lehiaketa egin zen.
 - Gurasoek lan-jardunaldi bat antolatu zuten azpiegiturak hobetzeko: hesiak margotzea, murala, iturriaren mosaikoa...

Curriculum-berrikuntza:

- Helburua: programazioetan txertatzea hondakinei buruzko jarduerak curriculumarrak.
- Adierazlea: txertatutako jardueren kopurua.
- Ekintzak: curriculumari lotuta ekintza ugari aurrera eraman ziren bai ikastetxean (ikasgeletan eta beste espazio batzuetan), bai kanpoan, hezkuntza-mailaren arabera sailkatuta (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza):
 - Paperontzien dekorazioa eta erakusketa.
 - Hondakinei buruzko ipuinen azalpena.
 - Erabilitako arroparen bilketa eta irtenaldia Berohi/Rezikleta kooperatibara.
 - Antigas zabortegiari behaketa.
 - Paper birziklatuaren elaborazioa.
 - Eskolaren sarrerenaren dekorazioa material birziklatuekin.

3.5. Eskolako Agenda 21en komunikazioa eta ebaluazioa

Lehen ere esan denez, Komunikazioa eta Ebaluazioa prozesu osoari dagozkio, baina esangura eta garrantzia berezia hartzen dute amaieran. Une hau aproposa da ibilbide osoaren emaitza eta onartutako proposamen eta konpromiso garrantzikoak ezagutzera emateko, baita egindako horren guztiaren balorazio orokorra izateko ere

Komunikazioa

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------

Komunikazioaren asmoa da Eskolako Agenda 21en ibilbidea eta emaitzak ezagutzera ematea eta hezkuntza-komunitateko kide guztiengana iristea. Horretarako, oso egokia da hasiera-hasieratik zehaztea zer komunikatu nahi den; adibidez, eskolako eta herriko diagnostikoaren ondorioak, ekintza-planaren ildo nagusiak, hartutako konpromisoak eta egindako proposamenak, ebaluazioaren emaitzak eta hurrengo ikasturterako aurreproiektua.

Proiektuaren hedapenerako eta komunikaziorako zenbait era:

- **Txoko Berdea.**
- **Eskolako Agenda 21en eguna.**
- Iraunkortasunari buruzko **aldizkaria edo triptikoa**: proiektuaren garapenera buruzko inFormazioa (diagnostikoa, ekintzak, ebaluazioa...) eta iraunkortasunarekin zerikusia duten gaien aurkezpena (berriak, artikuluak, iritziak...).
- **Ikastetxeko komunikabideak** erabiltzea (ikastetxeko urtekaria eta aldizkaria, web-orria, blog-a, irratia, intraneta...).
- Tokiko **komunikabide**tan parte-hartzea (prentsa, irratia, telebista, aldizkaria...).
- Landutako gaiari buruzko **erakusketak**.
- **Hitzaldiak, mahainguruak eta antzerkiak.**

Komunikazioan garrantzi berezia dute udal-ordezkarien aurrean egiten diren Foroek, Eskolen Udal Foroek hain zuzen. Izan ere, topaleku hauetan ikasleak protagonista nagusiak dira, udalerriko ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzen da, udal-ordezkarien aurrean aurkezpena egitean udalerriarrekiko lotura indartzen da eta egingarriak diren proposamenei gauzatzeko bidea irekitzen

zaie. Modu horretan ixten da Eskolako Agenda 21en eta haren oinarria den Tokiko Agenda 21en arteko lokarriaren zikloa.

Ikasleen komunikazioak ebaluaziorako erabil daitezke. Izan ere, ikasleak prozesuan zehar ikasitakoa aditzera emateko gai baldin badira, eta gainera, modu egokian egiten baldin badute, ondo barneratuta dagoen seinale argia da.



BARAKALDOKO ALKARTU IKASTOLAREN KOMUNIKAZIO PLANA HONDAKINEN GAIAN

Alkartu ikastola Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea da. Eskolako Agenda 21 proiektuak hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa eskatzen du, eta horretarako guztiz garrantzizkoa da egiten denaren komunikazio eraginkorra lortzea, ahalik eta sektore gehienetara heltzeko.

Komunikazio-arlo honetan jardueren mota asko egin ziren ikasturtean zehar. Horien artean hauek azpimarra daitezke:

- **Web** bat zabaldu zen Eskolako Agenda 21i buruzko inFormazioa biltzeko, ekintzen berri emateko eta partaidetza sustatzeko: www.alkartuikastola.com.
- **Blog**-en gertutasuna eta eguneratzeko erraztasuna ikusita, bat sortu zen <http://ae21alkartu.blogia.com/>. Minutu gutxian eskuragarri zeuden berriak eta iradokizunak uzteko aukera ere ematen zuen.
- Aipatzekoa da maiatzaren amaieran ospatu ohi den **Kultur Astea**. 2005-2006 ikasturtean, gaia Eskolako Agenda 21 izan zen, eta komunikazioa indarberritzeko hainbat ekintza egin ziren:
 - Gurasoei zuzendutako hitzaldiak. Bi saiotan egin ziren: goizez eta arratsaldean. Ortzadar S.L. enpresako ingurumen-hezitzaileak Tokiko Agendaren azalpena egin ondoren, gure ikastetxearen Ekintza Planaren erabakien eta ordura arte eginiko ekintzen berri eman zitzaizkien.
 - Agendaren gaiaren inguruan egindako triptikoak eskuragarri jarri ziren Txoko Berdeetan.
 - Aurkezpen digitalak egin ziren astean zehar.
 - Ikasle nagusiek Eskola Agenda 21en inguruan lehen zikloko hitzaldia eman zieten, aurkezpen digitala erabiliz, haiek prestaturiko inFormazioarekin.
 - Erakusketak ere prestatu ziren ikasleek birziklapen-tailerretan eginiko jostailuekin eta irakasleek eginiko ikastaroaren ekoizpenekin.



Ebaluazioa

Ebaluazioarekin hausnarketa kritikoa egiten da Eskolako Agenda 21en prozesua berraztertzeko, baloratzeko eta hobetzeko. Komeni da ebaluaziorako ekintzak ikasturtean zehar egitea, baina proiektuaren amaiera da memento egokia helburuen lorpen-maila jakiteko eta ibilbidean egindakoa balioesteko.

Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
--------	---------	---------	--------	-------	--------	---------	-----------	---------	---------	---------	---------	--------

Ebaluazio-prozesuan inplikaturako agente guztiak hartu behar dute parte. Ebaluatu nahi denaren arabera, jarduerak taldeka antola daitezke, hiru mementotan egiteko:

1. Hasierako ebaluazioa
2. Ekintza Planaren ebaluazioa
3. Programa osoaren ebaluazioa

1. Hasierako ebaluazioa

Hasierako ebaluazio moduan har daiteke diagnostikoa. Arestian azaldu den eran, diagnostikoaren bidez ikastetxeko eta udalerriko egoeraren irudi bat lortzen da.

Komeni da diagnostikorako plan bat diseinatzea, ondo zehaztuta gera dadin zer aztertzen den, nola aztertzen den eta zer baliabide erabiliko diren. (EA21eko Koadernoaren “Diagnostikorako plana” 4. fitxa).

Diagnostikoa egindakoan, ondorioak ateratzen dira, eta horien arabera zehazten da zeintzuk izango diren lehentasunak (Koadernoaren “Diagnostikoaren ondorioak eta lehentasunak” 5. fitxa).

Nabarmendutako lehentasun horiek orientabide onak izan daitezke Ekintza Planaren hobekuntza-helburuak zehazteko.

2. Ekintza Planaren ebaluazioa

Programa hau, batez ere, Ekintza Planean gauzatzen da (EA21eko Koadernoaren 6. fitxa), eta horregatik komeni da egindakoaren balorazioa ahalik eta zorrotzena izatea.

Ez da posible gaiaren ikuspuntu edo ikuspuntu guztiak jorratzea ikasturte batean, eta, beraz, ikuspuntu zehatz batzuk aukeratzen dira Ekintza Planean lantzeko. Kudeaketaren kasuan, ikuspuntu horiek gai zehatz modura har daitezke (adibidez, kutsaduraren gaia ikuspuntu orokorragoa da, eta uraren kutsadura, berriz, arlo horren barruko gai zehatzagoa izan daiteke). Horiek denak, curriculum-berrikuntzaz eta partaidetzaz gainera, adierazleen bitartez neur daitezke. Agendako gai nagusien ikuspuntu batzuk koadro honetan daude jasota adibide moduan.

GAI NAGUSIAK ESPARRUAK	Eskola eta herria	Globalizazioa	Biodibertsitatea	Kontsumo- ohiturak	Klima- aldaketa	Baliabide naturalak	Garraioa eta mugikortasuna	Kutsadura	
KUDEAKETA IRAUNKORRA	Aisia	Kultura- aniztasuna	Udalerriko bertako espezieak	Paperaren kontsumoa	Energia	Baliabideen kontsumoa	Mugikortasun iraunkorra	Ura	
CURRICULUM BERRIKUNTZA	Curriculumaren egokitzapena								
	Hezkuntza-komunitatearen partaideen jarrera arduratsuak								
	Diziplinartekotasuna								
	Irakasleen prestakuntza								
	Ikasleen ikasketa								
	Ingurumen-arazoen konplexutasuna								
	Bizikidetzak								
	Solidaritatea								
PARTAIDETZA	Komunikazioa								
	Partaidetza udalerrian								
	Partaidetza eskolan								
	Antolakuntza parte-hartzailea								
	Tutoretza								
	Partaidetza gelan								
	Partaidetzarako sentsibilizazioa								
	Familia								
IKUSPUNTUAK									

- Adierazleen bidez ebaluatzen diren Agendaren gai nagusien ikuspuntu batzuk

Jarraian hiru taula daude: “Kudeaketa iraunkorra”, “Partaidetza” eta “Curriculum-berrikuntza”. Taula horietan berriazko **adierazleak** aurkezten dira, Ekintza Planean finkatutako helburu zehatzak zenbateraino bete diren neurtzeko. Dena den, taula horietan azaltzen direnak adibide hutsak dira, ikastetxe bakoitzerako erreferentzia eta eredu izan daitezkeelakoan.

Taulak egiteko programaren zortzi gai nagusiak hartu dira kontuan, baita horiek garatzeko lantzen diren hiru esparruak ere. “Kudeaketa iraunkorra” taulan ikus daitezkeen, gai bakoitzeko (Eskola eta herria, Globalizazioa, Biodibertsitatea, Kontsumo-ohiturak, Klima-aldaketa, Baliabide naturalak, Garraioa eta mugikortasuna eta Kutsadura) ikuspuntu bana aukeratu da; beraz,

zortzi ikuspuntu. Gainerako esparru bietan, berriz, edozein gairentzat egokiak diren zortzina ikuspuntu proposatu dira. Taulatan esparru bakoitzari loturiko Ekintza Planeko hobekuntza-helburu zehatz bat agertzen da eta bera ebaluatzeko adierazle berezia; modu horretan, Ekintza Planean zehaztutako helburuen betetze-mailaren balorazioa egiten da, egon daitezkeen hutsuneak antzematen dira eta, oro har, ondo doazen edo hobetu behar diren atalak detektatzen dira.

Ikastetxe bakoitzak, noski, bere Ekintza Planeko hobekuntza-helburuei egokitutako adierazleak aukeratu beharko ditu. Oso komenigarria da esparru bakoitzean adierazle horietako batzuk –esanguratsuenak– aukeratzeko, urterik urtera izan duten bilakaera aztertu ahal izateko.

KUDEAKETA IRAUNKORRA				
GAIA	IKUSPUNTUA (GAI ZEHATZA)	HOBEKUNTZA HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEA	TRESNA
Eskola eta herria	Aisia	Aisiarako gune bat hobetzeko proposamenak egitea	Hobetzeko proposamenak: zenbat eta nolakoak	Eskolen Udal Forara eramandako txostena
Globalizazioa	Kultura-aniztasuna	Ikasle etorkinentzako harrera-plana zehaztea eta aplikatzea	Harrera-planarekiko ikasle etorkinen gogobetetze-maila	Galdetegia
Biodibertsitatea	Udalerriko bertako espezieak	Bertako espezieek betetzen duten azalera % X handitzea udalerrian	Bertako espezieek betetzen duten azalera	Kontrol-taula
Kontsumo-ohiturak	Baliabideen kontsumoa	Ikastetxearen aztarna ekologikoa murriztea	Baliabideen kontsumoa (ura, energia, papera...)	Fakturak eta erregistroak
Klima-aldaketa	Energia	Igorritako karbono dioxidoa % X murriztea	Igorritako karbono dioxido kopurua	Karbono dioxidoaren taula bihurtzailea
Baliabide naturalak	Papera	Paperaren kontsumoa % X murriztea	Kontsumitako paper kopurua	Fakturak
Garraioa eta mugikortasuna	Mugikortasun iraunkorra	Bizikletaren erabilera sustatzea ikastetxerako joan-etorrietan	Bizikleta erabiltzen duten hezkuntza-komunitateko kide kopurua	Galdetegia
Kutsadura	Ura	Garbigarri toxikoen erabilera murriztea	Garbikari toxikoen kopurua	Fakturak

PARTAIDETZA				
GAIK	IKUSPUNTUA	HOBEKUNTZA HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEAK	TRESNAK
Edozein gai	Komunikazioa	Ikasleen % Xk diagnostikoaren emaitzak ezagutzea	Diagnostikoaren emaitzak ezagutzen dituzten ikasleen ehunekoa	Galdetegia
	Partaidetza udalerrian	Udalerriko ingurumen-ekintzatan (garbiketa, landaketak, ibilbideak...) parte hartzea gainontzeko ikastetxeekin batera	Ekintza kopurua	Memoria
	Partaidetza ikastetxean	Ikasleen partaidetza Ekintza Planaren elaborazioan % X gehitzea	Ekintza Planaren elaborazioan parte hartu duen ikasle kopurua	Kontrol-taula
	Antolakuntza parte-hartzailea	Ikasleen partaidetzarako komisioak sortzea eta sustatzea	Sortutako komisioak Komisioen bilera kopurua	Bileren erregistroa
	Tutoretza	Tutoretza-orduetan iraunkortasunari buruzko X saio antolatzea	Erabilitako saio kopurua	Kontrol-taula
	Partaidetza gelan	Gelata eko-ordezkariek izendatzea	Eko-ordezkariek dituzten gela kopurua	EA21eko koadernoko 2. fitxa
	Partaidetzarako sentsibilizazioa	EA21en Egunean gela guztiak inplikatzea	EA21 Eguna tratatu duten gela kopurua	Kontrol-taula
	Familiak	Familiak iraunkortasunaren aldeko ohiturak sustatzeko ekintzetan parte hartzea	Ekintzetan parte hartu duen familia kopurua	Erregistroa

CURRICULUM BERRIKUNTZA				
GAIAK	IKUSPUNTUA	HOBEKUNTZA HELBURU ZEHATZAK	ADIERAZLEAK	TRESNA
Edozein gai	Curriculum-berrikuntza	Arlo edo sailen programazioetan EA21 programaren txertaketa handitzea	Beraien programazioetan EA21en aspekturen bat integratu duten arloen edo sail kopurua	Sail edo arloei zuzendutako galdetegia
	Hezkuntza-komunitatearen partaideen jarrera arduratsuak	EA21en landutako gaiaren inguruko konpromisoak betetzea	Konpromisoen betetze-maila	Kontrol-taulak eta galdetegia
	Diziplinartekotasuna	EA21en inguruan arlo guztien ekarpenen uztarketa sustatzea	Arloen uztarketan erabilitako denbora	Erregistroa
	Irakasleen prestakuntza	Iraunkortasunari buruzko irakasleen prestakuntzarako X saio egitea	Parte hartu duen irakasle kopurua	Kontrol-taula
			Prestakuntzarako ordu kopurua	
	Ikasleen ikasketa	EA21en lantzen ari den gaiari loturiko ingurumen-arazoekausak identifikatzea	Kausen identifikazio-maila	Galdetegia
	Ingurumen-arazoekomplexutasuna	Ikasleek EA21en lantzen ari diren gaia dimentsio natural zein sozial eta ekonomikoaren arteko elkarreaginaren emaitza gisa hautematea	Gaiaren dimentsioen artean identifikatzen dituen erlazio kopurua	Galdetegia
	Bizikidetzatza	Konpromisoak hartzeko eta proposamenak egiteko elkarrekin eta adostasunean oinarritutako protokolo bat egitea	Protokoloa bera sortu	Txostena
Proposamen eta konpromiso kopurua				
Solidaritategia	Gizarteko behartsuekin lanean aritzen den erakunderen batekin solidaritatezko ekimenak garatzea	Ekimen kopurua	Txostena	

JESÚS OBRERO INSTITUTU POLITEKNIKOA: EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOAREN ADIBIDEA

Jesús Obrero Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxea da, eta Ingurumenaren Kudeaketa sistemaren ezarpena ziurtatzeko aukera ematen duen ISO 14001 Nazioarteko Araua dauka. Ikastetxearen kezka nagusietako bat izan da hondakinek eragiten dituzten inpaktuak murriztea.

Aurreko urteetan izan dugun esperientzian oinarrituta, eta Eskolako Agenda 21en metodologia kontuan hartuta, 2005/2006 ikasturtean urteko Ingurumen Programan hobekuntzak-helburuak eta jarduerak finkatu ditugu dagozkien arduradun eta adierazleekin, eta horien beteazpena martxoan eta ekainean gainbegiratu dugu, aurreikusitako helburuak zein neurritan bete diren egokino ebaluatu ahal izateko.





Hobekuntza-helburu horien artean, adibide gisa, hondakinen kudeaketarekin zerikusia duten bi nabarmenduko ditugu, egin dugun **ebaluazioa** agerian uzteko baliagarri izango zaizkigulakoan:

Hobekuntza-helburua: paper birziklatuaren kontsumoa handitzea:

- Helburu zehatza: ikastetxean erabilitako paperaren % 15 paper birziklatua izatea.
- Jarduera: zenbait dokumentutan (apunteak, azterketak...) paper birziklatua erabiltzea.
- Arduraduna: sailetako buruak.
- Adierazlea: paper birziklatuaren kontsumoa/paperaren guztizko kontsumoa.
- Balorazioa: helburua betetzat hartu dugu, kontsumitutako guztizko paperetik % 23 birziklatua izan delako.

Hobekuntza-helburua: garbiketa-produktu arriskutsuen ontzien hondakinak murriztea:

- Helburu zehatzak:
 - Beste garbiketa-produktu batzuk bilatzea (onaingoak bezain arriskutsuak ez diren beste batzuk, alegia).
 - Garbiketa-produktu arriskutsuen % 5 ordeztzea.
- Jarduera:
 - Produktu biodegradagarriak detektatzea.
 - Produktuak nola ordeztu aztertzea: bideragarritasuna.
 - Produktu bideragarriak erostea eta arriskutsuak kentzea.
- Arduradunak: garbitzaileen arduraduna, Ingurumen Batzordearen koordinatzailea eta administrazio-zuzendaria.
- Adierazleak: erositako produktu biodegradagarrien kantitatea (kg/urte).
- Balorazioa: identifikazioa egin da, baina garbiketa-produktu arriskutsuen % 3 bakarrik ordeztzea lortu da.

3. Programa osoaren ebaluazioa

Ikasturtearen amaieran egiten den ebaluazioa da. Horretan, programaren osotasuna baloratzen da, bai ibilbidean egindako lana, bai erdietsi diren lorpenak. Horrela, hurrengo ikasturteari begira, programa hobetzeko neurriak proposa daitezke. Gainera, EA21 programa hasi berria ez bada ikastetxean, eta urte batzuk baldin baditu, baliogarri

izango da begirada bat emateko, bai aurreko urteetan hartutako erabakien edota konpromisoen betetze-mailari, baita horien ondoren egindako hobekuntzei ere.

Ebaluazio hori egiteko ekainean aurkezten den Memoria (EA21eko koadernoaren 9. eta 10. fitxak) erabiltzen da.

3.6. Etorkizunari begira: balorazioa eta hausnarketa



tal honetan ebaluazio-tresna bat aurkezten da, Eskolako Agenda 21 programan urteak daramatzaten ikastetxeetarako interesgarria izan daitekeelakoan. Tresna hau ikastetxeen autoebaluaziorako diseinatu da, eta bakoitzak egin duen ibilbideaz hausnarketa eragiteko balio dezake. Era berean, diagnostikorako zein ekintza-planerako erabil daiteke.

Tresna hau zenbait irizpidetan oinarritzen da, betiere, programak dituen helburuei lotuta (ikus 2.b “Zertarako da Eskolako Agenda 21” atala). Irizpide horiek multzoka taldekatu dira, esanguratsuak diren aspektu batzuen arabera: ikastetxearen proiektua eta iraunkortasuna, programaren

garapena, antolaketa, baliabideen kudeaketa eta ingurune fisikoaren hobekuntza, partaidetza eta komunikazioa ikastetxean eta udalerrian, curriculum-berrikuntza, eta eragileen gogobetetze-maila. Honen bidez, beraz, Eskolako Agenda 21 en garapena nolakoa izan den eta zer ondorio izan dituen baloratu nahi dugu, eta etorkizunean norantz jo dezakeen antzeman.

Atal bakoitzari lotuta, galdetegi bat agertzen da ikastetxearen egoera-mailak adierazteko. Horri erantzuteko, zenbakizko balio-segida bat dago, gutxienetik (1) gehienera (5), eta hiru irizpide (1,3,5) azaltzen dira. 2 eta 4 balioek bitarteko egoerak adierazten dituzte.



I. Ikastetxeko proiektua eta iraunkortasuna

Baloratu nahi dena: Ba al dago guztion artean adostutako ideia multzo bat iraunkortasunari buruz? Agertzen al da ideia multzo hori ikastetxeko proiektuetan, hezkuntza-praktiketan eta jarreretan?

1.a. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua	
Ikastetxearen dokumentu garrantzitsuetan (Hezkuntza Proiektua, Antolamendu- eta Jarduera-araudia, Tutoretza Plana...) ez dago inolako aipamenik iraunkortasunari buruz, kudeaketa iraunkorraren garrantziari buruz eta iraunkortasuneko hezkuntzari buruz	1
	2
Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak iraunkortasuneko hezkuntza aipatzen du, baina ez du helburu eta jarduera zehatzik finkatzen. Gainera ez da zehazten ikastetxeko beste dokumentu garrantzitsuetan	3
	4
Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak badu gutxienez atal bat iraunkortasuneko hezkuntzari buruz. Atal horretan ikastetxeko beste dokumentu garrantzitsuetan ere islatzen diren helburuak eta hezkuntza-kudeaketaren proposamenak zehazten dira	5

Azpiatal honetan ikastetxeko dokumentu garrantzitsuenak ebaluatu nahi dira: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Antolamendu- eta Jarduera-araudia, Tutoretza Plana...

1.b. Ikastetxeko hezkuntza-garapena	
Irakasleek, Guraso Elkarateak edo pertsona arduratsuek bultzatuta, ingurumen-ekintzak antolatzen dira noizean behin. Eskolako Agenda 21en programatuta egon arren, ekintza horiek ez dute eragiten ikastetxearen hezkuntza-garapenean	1
	2
Ikasturtean zehar Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin lotutako ingurumen-ekintzak egiten dira. Ekintza horiek EA21en programatuta daude eta irakasle kopuru adierazgarriak bultzatzen ditu	3
	4
Iraunkortasunarekiko printzipioak ikastetxearen eguneroko ekintza kolektiboetan eta gelako lanetan daude, baliabideen kudeaketan, ordutegi eta espazioen antolakuntzan eta hezkuntza- komunitatearen partaideen arteko harremanetan	5

Hezkuntza Proiektuaren aplikazioa (Hezkuntza Proiektua martxan) ebaluatzen da azpiatal honetan, eguneroko hezkuntza-praktikan antzematen dena, hain zuzen

1.c. Jarreraren aldaketa	
Eskolako Agenda 21 programan landu den gaiaren inguruko jarrerak oso gutxi aldatu dira, eta hezkuntza-komunitateko kide bakan batzuetan baino ez da nabaritzen	1
	2
Jarrera-aldaketa inplikazio handiena izan duten ikasle eta irakasleengan nabaritzen da, baina, oraindik, ikastetxearen giro orokorrean ez da antzematen	3
	4
Jarrera-aldaketak nabariak dira hezkuntza-komunitateko kideengan eta eragina argia da ikastetxearen giro orokorrean	5

Azpiatal honetan ebaluatu nahi da ikasteko-irakasteko prozesuan Eskolako Agenda 21i buruz landu denaren eta, gero errealitatean egiten denaren arteko koherentzia-maila

2. Programaren garapena

Baloratu nahi dena: gaiari loturiko arazoaren konplexutasuna noraino aztertu den, eta proposatutako alternatibak eta konpromisoak noraino gauzatu eta bereganatu diren

Eskolako Agenda 21en garapena	
Programan landu den gaia azaleatik aztertu da, Ekintza Planak gaiari loturiko ingurumen-arazoak hobetzeko jarduera solte batzuk jaso ditu eta egin diren proposamenak eta hartu diren konpromisoak ez dira maila formalek pasatu. Ingurumen Batzordearen hausnarketaren ondorio baino ez dira	1
	2
Landu den gaia sakonki aztertu da, Ekintza Planak ondo antolatutako jarduera-multzo bat jaso du, baina neurri handi batean ez dira aplikatu. Proposamenak zein konpromisoak ikasgela batzuetan eta zenbait irakasleren artean eztabaidatu, adostu eta bereganatu dira	3
	4
Landu den gaia bere konplexutasun osoan aztertu da, Ekintza Planak aztertutako aspektu guztietan ondo antolatutako hobetzeko jarduerak jasotzen ditu eta, oro har, aplikatu egin dira. Proposamenak zein konpromisoak, irakasle askoren partaidetzarekin, ikasgela guztietan eztabaidatu, adostu eta bereganatu dira	5

3. Iraunkortasunerako antolakuntza, baliabideen kudeaketa eta ingurune fisikoaren hobekuntza

Baloratu nahi dena: programa garatzeko nola antolatu den eta zer hobekuntza egin diren ikastetxeko kudeaketan, materialen kontsumoan, hondakinen tratamenduan, mugikortasunean, biodibertsitatean eta espazioen kalitatean

3.a. Sortutako egiturak	
Programarako sortu den egitura bakarra Ingurumen Batzordea izan da, soilik ikasle eta irakasle boluntario batzuek osatu dute, eta urtean hiru aldiz edo gutxiagotan batzartu da	1
	2
Estamentu guztien ordezkariekin osatutako Ingurumen Batzordeaz gain, programarekiko inplikazio handiena duten irakasleek talde sustatzailea ere sortu dute. Taldean zuzendaritzaren ordezkari batek ere hartzen du parte, eta ordutegian finkatuta dute ordu komun bat	3
	4
Ingurumen Batzordea eta talde sustatzaileaz gain, eginkizun bereziak betetzeko, berariazko komisioak (Patruila Berdea, Komite Txikia...) sortu dira edota antolamendu iraunkor bat dago (gelen arteko arduren banaketa...). Komisio horiek bereziki ikasleek osatuta daude	5

Azpiatal honetan programarako eratu den antolakuntzaren egokitasuna aztertzen da

3.b. Baliabideen kudeaketa	
Azpiegituran eta antolakuntzan hobekuntzak ezarri dira hiru aspektu (paperaren kontsumoa, paper birziklatuaren kopurua...) edo gehiagotan	1
	2
Azpiegituran eta antolakuntzan hobekuntzak ezarri dira eta hiru aspekturen edo gehiagoren etengabeko jarraipena egiten da	3
	4
Hobekuntzak ezarri ondoren, eguneroko baliabideen kudeaketak iraunkortasunaren printzipioak betetzen ditu, ikasleek eta ikastetxeko langileek (irakasleek eta ez-irakasleek) onartzen dute eta praktika horien etengabeko jarraipena egiten da	5

Azpiatal honetan ikastetxeko baliabideen kudeaketaren sistema baloratzen da

3.c. Ingurunean hobekuntzak	
Ikastetxeko eta bere inguruko espazioetan (gelak, espazio komunak, jantokia, patioak, ikastetxe-ingurua, auzoa...) hobekuntza batzuk ezarri dira ingurumen-kalitatean (konfort akustikoa, garbitasuna, mugikortasun iraunkorra, ikastetxerako bidea...) edo biodibertsitatean (loreontziak, lorategiak, urmaelak, ortua, hiri parkea...)	1
	2
Ikastetxeko eta bere inguruko espazioetan hobekuntza garrantzitsuak ezarri dira, baina oraindik ez dago jarraipen sistematikorik	3
	4
Hobekuntzak ezarri ondoren ikastetxearen eta bere ingurunearen eguneroko kudeaketak iraunkortasunaren printzipioak betetzen ditu. Ikasleek eta ikastetxeko langileek onartzen dituzte eta horien etengabeko jarraipena egiten da	5

Ingurune fisikoaren hobekuntzak ebaluatzen dira azpiatal honetan

4. Partaidetza eta komunikazioa ikastetxean

Baloratu nahi dena: ikastetxearen barne giroan, hau da, partaidetzan, komunikazioan... nolakoa den berrikuntzen kalitatea, iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta

4.a. Partaidetza	
Eskolako Agenda 21 programaren faseetan egindako lana, irakasle gutxi batzuek proposatu, programatu eta antolatu dute. Ingurumen Batzordea laguntza puntualak ematera mugatu da. Ikasleek enkargatu zaizkien jarduera batzuk baino ez dituzte egin	1
	2
Eskolako Agenda 21 programaren faseetan egindako lana, Ingurumen Batzordeak proposatu, programatu eta antolatu du, eta irakasleen proportzio esanguratsu baten inplikazioa izan du. Inplikaturako ikasle gehienak enkargatu zaizkien jarduerak egiten aritu dira, eta zenbait unetan, iradokizunetarako planifikaziorako egin denaren ebaluazioa egiteko espazio eta denbora izan dituzte	3
	4
Eskolako Agenda 21 programaren faseetan egindako lanaren inguruko erabakiak eta konpromisoak inplikaturako hezkuntza-komunitateko agenteekin batera hartu dira. Prozesu osoan protagonista nagusiak ikasleak izan dira	5

Azpiatal honetan aztertu nahi da Eskolako Agenda 21en garapenean zein estamentu inplikatu diren, nor diren benetan parte hartu dutenak eta zer partaidetza mota izan duten

4.b. Komunikazioa	
Ez dago komunikazio-plangintzarik. Komunikazioa informatzera mugatu da. Normalean informazioa irakasleengandik gainerako estamentuetarantz bideratzen da	1
	2
Komunikazio-plangintza baten arabera egiten da, eta horretarako, alde zuzenetik, mugari eta estrategia batzuk zehaztu dira Ingurumen Batzordean. Hala ere, kasu gehienetan, komunikazioa informatzera mugatu da	3
	4
Komunikazioa Ingurumen Batzordean egindako plangintza baten arabera burutzen da. Ikasleek jasotzen duten informazioa, beraien kabuz aztertzeko, interpretatzeko eta baloratzeko mekanismoak izan ditzaten estrategiak erabiltzen dira. Oro har, komunikazioa estamentuen arteko giro demokratikoaren ondorioa da eta giro hori indartu egiten du	5

Azpiatal honetan ikusi nahi da Eskolako Agenda 21en garapenean zer motatako komunikazioa eman den, nor izan diren parte hartu dutenak eta zeren arabera egin den



5. Udalerria eta ikastetxeen arteko elkarlana

Baloratu nahi dena: Iraunkortasunaren ikuspuntutik begiratuta, nolakoak diren eskolen eta udalerraren arteko elkarrekin (udalarekin harremanak, Eskolako Agendaren eta Tokikoaren arteko lotura-maila, udalerrian eta eskolan lortutako onurak...)

Eskolaren eta udalerraren arteko harremanak	
Eskolako Agenda 21 garatzeko Hitzarmena sinatu da. Eskolen Udal Foro bat egin da, baina Udalarekiko harremanak puntualak eta erabat formalak dira, eta eskola eta udalerraren arteko elkarrekin ez dira, iraunkortasunaren ikuspuntutik, aipatzeko moduko aurrerapausoak eman. Eskolako Agendaren eta Tokiko Agendaren bideak paraleloak dira ez baitute elkarren berri	1
	2
Eskolen arteko Foroan eztabaidatu eta adostu ondoren, Eskolen Udal Foroan egindako proposamenak aintzat hartu dira eta udalarekin lankidetzarako eremu argia zabaldu da. Oro har, eskolen eta udalerraren arteko elkarrekin aurrerapauso batzuk eman dira	3
	4
Eskolako Agenda 21 Tokiko Agendaren osagarri gisa ari da garatzen, udalerrian eta eskoletan lantzen dena ondo koordinatuta dago eta lankidetzak, iraunkortasunaren ikuspuntutik, begi bistako onurak ekarri ditu	5

6. Curriculum-berrikuntza eta bere garapena

Baloratu nahi dena: Batetik, zenbateraino integratu den iraunkortasunaren ikuspegia Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta, bestetik, irakasteko eta ikasteko prozesuaren eraginkortasuna

6.a. Ikastetxeko Curriculum-Proiektua	
Eskolako Agenda 21 programari loturiko edukiak, jarduerak eta baliabide didaktikoak soilik Natur Zientzietako arloan agertzen dira. Ez dago metodologia ikertzailerik eta parte-hartzailerik. Ez dago koordinaziorik ikastetxeko beste hezkuntza-proiektuekin	1
	2
Eskolako Agenda 21 programari loturiko edukiak, jarduerak eta baliabide didaktikoak zenbait arlo edota sailetan txertatu dira, baina ez guztietan. Arlo edota sail batzuetan metodologia-aldaketa sustatu da. Beste proiektu batzuekin koordinazio puntuala dago jarduera batzuk egiteko	3
	4
Eskolako Agenda 21 programari loturiko edukiak, jarduerak eta baliabide didaktikoak arlo edota sail guztietan txertatu dira modu koordinatu eta sistematizatuan. Metodologia, oro har, ikertzaile eta parte-hartzailea da. Ikastetxeko beste hezkuntza-proiektuekin koordinazio egonkorra eta plangintza bateratua dago	5

Azpiatal honetan Eskolako Agenda 21 programaren Ikastetxeko Curriculumean duen txertaketa-maila aztertu nahi da, hau da, ingurumen-arazoak ezagutzeko, beraien kausak zein diren ulertzeko eta haien konponketarako estrategiak garatzeko eskaintzen diren edukien, jardueren eta baliabide didaktikoen integrazio-maila ikusi nahi da; baita metodologiaren aldaketa-maila ere

6.b. Curriculumaren garapena	
Ikasle gutxi batzuk dira gai ezagutzen dituzten ingurumen-arazoen aurrean, horien kausak identifikatzeko eta, beraien arteko elkarkidetzan oinarrituta, haiek konpontzeko estrategiak planteatzeko eta konpromisoak hartzeko	1
	2
Ikasle guztien proportzio esanguratsu bat gai da ezagutzen dituen ingurumen-arazoen aurrean, horien kausak identifikatzeko eta, beraien arteko elkarkidetzan oinarrituta, haiek konpontzeko estrategiak planteatzeko eta konpromisoak hartzeko	3
	4
Ikasle gehien-gehienak gai dira ezagutzen dituzten ingurumen-arazoen aurrean, horien kausak identifikatzeko eta, beraien arteko elkarkidetzan oinarrituta, haiek konpontzeko estrategiak planteatzeko eta konpromisoak hartzeko	5

Azpiatal honetan irakatsi nahi denaren eta benetan ikasten denaren arteko korrelazioa ebaluatu nahi da

7. Gogobetetze-maila

Baloratu nahi dena: Hezkuntza-komunitateko estamentuek Eskolako Agenda 21 programari buruz duten gogobetetze-maila

7.a. Ikasleen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

7.b. Irakasleen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

7.c. Gurasoen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

7.d. Langile ez-irakasleen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

7.e. Ingurumen Batzordekideen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

7.f. Koordinatzailearen gogobetetze-maila	
Programarekin duten gogobetetze-maila oso eskasa da	1
	2
Programarekin duten gogobetetze-maila nahikoa da	3
	4
Programarekin duten gogobetetze-maila oso ona da	5

Oharra: autoebaluaziorako tresna hau Bartzelonako Eskolako Agenda 21 en landutako irizpideetan oinarritu da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko EA21 programaren ezaugarrietara egokitu da.

4



BALIQBIDERAK

- 4.1. Material didaktikon.
Bibliografia. Afdizkariak. Web-ak
- 4.2. Ingurugelak

4.1. Material didaktikoa. Bibliografia. Aldizkariak. Web-ak

Nabarmena denez, Eskolako Agenda 21 bezalako proiektu batean eskolak eksklusibitatea galtzen du hezkuntza-baliabideen hornitzaile gisa



omunitatean/hirian ugariak dira hezkuntza-baliabideak (museoak, liburutegiak, fabrikak, aisialdirako tokiak, hondakinen kudeaketa-zentroak, garraioa, ura edo energia, etab.), gizarte-agentek ahaztu gabe. Hiri osoa lurralde pedagogiko bat da, eta Tokiko Agenda 21en kudeatzaileek hori guztia koordinatu eta beren inguruko ikastetxeek eskaini behar diete. Gida hau mugatua denez, ezin ditugu hemen baliabide horiek guztiak bildu.

Material didaktikoa

Azken urte hauetan Ingurugelak hainbat hezkuntza-mailatarako material didaktikoak landu eta prestatu ditu. Jarraian aipatzen direnak Eskolako Agenda 21 garatzeko lagungarriak dira.

- Haur Hezkuntza. Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Unitate didaktikoak: “Animaliak eta landareak”, “Baliabideak eta materialak”. Luisa Arana Navarides et al. Vitoria-Gasteiz, 1996.
- Haur Hezkuntza. “Gure herria”. Rosa Maiztegi Iriondo. Vitoria-Gasteiz, 1998.
- “Inguru-minguru” Haur eta Lehen Hezkuntzarako ipuin-bilduma. E. Genua, P. Aristi, A.I. Morales, J. Muguruza, I. Rozas. Donostia-San Sebastian, 2001.
- Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako unitate didaktikoak: kutsadura, biodibertsitatearen galera eta ekonomia-jarduerak ingurumenaren duten eragina. Zenbaiten artean, 1996.
- Lur eta Ingurumenaren Zientziak. Batxilergorako unitate didaktikoak (CD-ROM). J. Marañon et al. Vitoria-Gasteiz, 2004.
- “Eguneroko bizitzaren ekologia”. Pertsona helduen hezkuntzarako unitate didaktikoak. Asun Fernández Ostolaza. Vitoria-Gasteiz, 1997.

- Lanbide-arlo desberdinetako Heziketa Zikloetarako unitate didaktikoak: Sukaldaritza eta ingurumena, Elektrizitatea eta ingurumena, Eraikuntza eta ingurumena, Kutsatu gabe aztertzea, Informatika-sistemak eta ingurumena, Fabrikazio mekanikoa eta ingurumena, Ile-apainketa eta ingurumena, Elikagaien industria eta ingurumena, Administrazioa eta ingurumena eta Nekazaritza eta ingurumena. Zenbaiten artean. Vitoria-Gasteiz, 1999 eta 2001.
- Gida didaktikoak jasotzen dituzten kartelak: kostaldeko, ibaiko eta hiriko ekosistemak, eta eskola ekologikoa. Azken hori honako hauei buruzko ideia praktikoak dituzten foiletokin osatzen da: papera, ura, animaliak, energia, eta abar.
- Ibaialde unitate didaktikoa. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako materialak. J. Larruskain eta L. Muela. Vitoria-Gasteiz, 1998.
- Azterkosta unitate didaktikoa. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzarako materialak. L. Muela et al. Vitoria-Gasteiz, 2000.
- “Eskola baratza”. Eskolako baratzeari buruzko karpeta, haren mantentze-lana eta zaintza egiteko fitxekin.
- “Eskolako eko-auditoria” eskuliburua. Asun Fernández Ostolaza. Vitoria-Gasteiz, 1998.
- “Urdaibaiko paisaia. El paisaje de Urdaibai”. Derrigorrezko Hezkuntzako proposamen didaktikoa. Jose Martinez (koordinazioa). Vitoria-Gasteiz, 2004.
- “Urdaibai proiektu didaktikoa. Urdaibaiko ingurumenaren analisisa paisaian oinarrituz”. Batxilergoa. A. Caño et al. Vitoria-Gasteiz, 2004.
- “Ura: aniztasunari ekiteko hamaika proposamen”. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Sukarrieta Taldea. Vitoria-Gasteiz, 2005.
- HEWITT, Nikola. *Guía para la planificación de las Agendas 21 Locales*. ICLEI. Vitoria-Gasteiz, 1998.
- *Iraunkortasuneko hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 2006.
- MARTÍNEZ, Joseba: *Ekin etxean ere. Familia Eskolako Agenda 21 en. También en casa. La familia en la Agenda 21 Escolar*, Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 2004.
- MARTÍNEZ, Joseba; ARANA, Xabier: *Eskolako Agenda 21. Urdaibai*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2006.
- *Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum*. Urriaren 16ko 175/2007 Dekretua (2007ko azaroaren 13ko EHAA).
- SANTXO, Gurutze; CORTÉS, Iñaki: *Guía de la Agenda Local 21 Escolar*, Red Navarra de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad y Gobierno de Navarra, Iruñea, 2006.
- WEISSMAN, Hilda: *Guía para hacer la Agenda 21 Escolar*, Ministerio de Medio Ambiente, Bartzelona, 2005.

Aldizkariak eta artikulua

- AZKAZIBAR, Irene; SUINAGA, Jaione: “Caminando por la senda de la educación ambiental”, *in* Aula de innovación educativa, 140 (2005), 62-65.
- ELU BENGOETXEA, Rakel; ARTETXE, Estibalitz: “Agenda 21 Escolar en la escuela pública de Ondarroa”, *in* Aula de innovación educativa, 140 (2005), 43-45.
- FRANQUESA, Teresa; WEISSMANN, Hilda: “El programa Agenda 21 Escolar. Las escuelas de Barcelona comprometidas con el futuro”, *in* Aula de innovación educativa, 140 (2005), 39-42.
- GUTIERREZ, Jose Manu; HERNANDEZ, Ricardo; BENITO, Jon: “Eskolako Agenda 21 munduan zehar” (I), *in* Hik hasi, 115 (2007), 32-34.
- GUTIERREZ, Jose Manu; HERNANDEZ, Ricardo; BENITO, Jon: “Eskolako Agenda 21 programa European (II), *in* Hik hasi, 116 (2007), 27-30.
- GUTIERREZ, Jose Manu; HERNANDEZ, Ricardo; BENITO, Jon: “Eskolako Agenda 21 programa Euskal Herrian (eta III), *in* Hik hasi, 117 (2007), 29-31.
- GUTIERREZ, Jose Manuel: “Agenda 21 Escolar: educación ambiental de enfoque constructivista”, *in* Carpeta informativa. Centro nacional de educación ambiental.
- *IHITZA*. Eskolako Agenda 21 zabaltzen. Impulsando la Agenda 21 Escolar. Ingurugela-CEIDA. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- MARTINEZ, Joseba: “La Agenda 21 Escolar en Euskadi”, *in* Aula de innovación educativa, 140 (2005), 51-53.

Bibliografia

- *Agenda 21 Escolar. Manual del alumno. Manual del profesor*. Área de Medio Ambiente del Ayuntamiento A Coruña. Coruña, 2003.
- BENITO, Jon; HERNANDEZ, Ricardo; MARAÑÓN, Jose; (Coord.): *40 Jardunbide Eskolako Agenda 21 Programan*. Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz, 2007.
- *Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen Esparru Programa*. IHOBE. Bilbao, 2007.
- FERNÁNDEZ, Asun: *Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2002.
- *Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategia (2002-2020)*. IHOBE. Bilbao, 2002.
- GUTIÉRREZ, José Manuel; HERNÁNDEZ, Ricardo; BENITO, Jon: *Eskolako Agenda 21 programaren ebaluazioa 2003-2006*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 2007.
- HART, Roger A., *La participación de los niños en el desarrollo sostenible*. P.A.U. Education, Bartzelona, 2001.

Web-ak

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa:

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila
www.ingurumena.net

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
www.hezkuntza.net

Aztertu programari lotutako helbidea
www.euskadi.net/aztertu

IHITZA. Ingurugelaren aldizkaria
www.euskadi.net/ihitza

IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
www.lhobe.net

Arabako Foru Aldundia
www.alava.net

Bizkaiko Foru Aldundia
www.bizkaia.net

Gipuzkoako Foru Aldundia
www.gipuzkoa.net

Vitoria-Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (CEA)
<http://www.vitoria-gasteiz.org/cea/es/html/15/336.shtml>

Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra
<http://www.ehu.es/cdsea/>

HABEA. Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkartea
www.habea.org

www.blogak.com/eskolakoagenda21

Nafarroako Foru Komunitatea:

Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa
www.crana.org

Espainiako Estatu:

Fundación Ecología y Desarrollo y Fundación Natura. Cambio climático
www.ceroco2.org

Ministerio de Medio Ambiente – Ingurumen Ministerioa

www.mma.es

EA21. Bartzelonako Udala

<http://www.bcn.es/agenda21/a21escolar/index.htm>

Centro Nacional de Educación Ambiental (CENEAM)

http://www.mma.es/portal/secciones/formacion_educacion/

Congreso Nacional de Medio Ambiente (CONAMA).

<http://www.conama8.org/>

Asociación Española para la Educación Ambiental

<http://www.ae-ea.org/>

Nazioartekoak:

Comisión Europea: cambio climático

http://ec.europa.eu/environment/climat/campaign/index_es.htm

Comisión Europea. Sección de Desarrollo Sostenible

http://ec.europa.eu/sustainable/welcome/index_en.htm

Oficina de Medio Ambiente de Europa

<http://www.eeb.org/Index.htm>

Agencia de Medio Ambiente de Europa

<http://sd-online.ewindows.eu.org/>

Fundación Europea para la Educación Ambiental

<http://www.fee-international.org/>

Proyecto transnacional Econet 21 (Sócrates-Comenius)

<http://www.econet21.org>

Decenio de las Naciones Unidas. UNESCO

<http://portal.unesco.org>

Objetivos de Desarrollo del Milenio

<http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html>

Ecoescuelas

<http://www.eco-schools.org/index.htm>

Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo

<http://www.undp.org/spanish/>

Naciones Unidas. División para el Desarrollo Sostenible

<http://www.un.org/esa/sustdev/>

4.2. Ingurugelak



Bizkai

BILBAO

Ondarroa kalea, 2
48004 Bilbao
4015 P.-ku.
Tel.: 94 411 49 99
Faxa: 94 411 47 78
e-maila: ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI

Udetxea Jauregia
Gernika-Lumoko errepidea z/g
48300 Gernika-Lumo
Tel.: 94 625 71 25
Faxa: 94 625 72 53
e-maila: urdaibai@ej-gv.es

Gipuzkoa

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Basotxiki kalea, 5 (Intxaurrenondo
auzoa)
20015 Donostia-San Sebastián
3271 P.-ku.
Tel.: 943 32 18 59
Faxa: 943 27 03 94
e-maila: ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI

Brinkola, z/g
20220 Legazpi
Tel.: 943 73 16 97
Faxa: 943 73 17 14
e-maila: ceida-legazpi@ej-gv.es

Ara


VITORIA-GASTEIZ

Baiona kalea, 56-58 (Lakua)
01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 17 90 30
Faxa: 945 17 90 36
e-maila: ceida-vitoria@ej-gv.es

5



GLOSARIO



- **Aztarna ekologikoa.** Bizi-maila espezifikoa duen populazio jakin batek erabiltzen dituen baliabideak produzitzeko eta sortzen dituen hondakinak asimilatzeko ekologikoki behar den lur emankorraren (laborantza, larreak, basoak edo uretako ekosistema) azaleraren neurketa.
- **Batzorde Pedagogikoa.** Sail, ziklo edo arlo bakoitzeko buruen eta Zuzendaritzaren artean aldizka egiten den batzarra, ikastetxearen hezkuntza-jarduerak koordinatzea helburu duena.
- **BHI.** Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea.
- **Bigarren Hezkuntza.** Hamabi eta hamasei urte bitarteko derrigorrezko hezkuntza-etapa. Lau ikasmaitan antolatuta dago.
- **Biodibertsitatea.** Aniztasun biologikoa ere deitzen da, eta Lurrean dauden bizidunen barietate handiari erreparatzen dio. Kontzeptuak espezie-, ekosistema- eta espezie barneko gene-aniztasuna hartzen du. Nazio Batuek Rio de Janeiron 1992. urtean egin zuten Lurraren Gailurrean biodibertsitatearen babesa eta iraunkortasunean oinarritutako giza aurrerapena bateragarri egiteko beharra onartu zen.
- **Bizikidetza Plana:** bizikidetza-alorrean ikastetxearen antolamendua eta funtzionamendua finkatzen duen dokumentua. Planaren atal nagusiak hauexek dira: ikastetxeak erabakitako bizikidetza-eredua, lortu behar diren helburu zehatzak, hura erregulatuko duen araudia eta aurreikusitako helburuak lortzeko egin behar diren ekintzak.
- **Delors txostena. XXI.** mendeko Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzardeak 1996. urtean UNESCO erakundeari aurkeztutako txostena da. Bertan jasotzen dira «hezkuntzaren lau zutabe» izenekoak, hau da, ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.
- **EAEko Euskal curriculuma.** Euskal Autonomia Erkidegorako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen eta arautzen ditu. 2007ko azaroaren 13ko EHAA-n argitaratu zen, eta indarrean dago hurrengo egunetik.
- **Ekitaldeak:** Udalsarea 21 (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) barruan dauden udalerriak elkarren artean komunikatzeko, ikasteko, laguntzeko eta ekiteko balio duten gaikako lan-taldeak dira.

- **Ekosistema.** Izaki bizidunen komunitate naturalaz eta horren ingurune fisikoz osatutako sistema. Kontuan hartzen ditu komunitatea osatzen duten izakien elkarrekintzak eta zeharkatzen duten materia- eta energia-fluxuak.
- **Europar Batasunaren V. programa.** Europar Batasunak 1998-2002 eperako sortutako programa. Horren bitartez, ikerkuntza eta garapen teknologikoa sustatu nahi ziren hainbat arlotan; besteak beste, garapen iraunkorraren arloan. Gaur egun indarrean dago jada VII programa (2007-2010).
- **Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada 2005-2014.** Nazio Batuek 2002. urtean hartutako ebazpena 2005-2014 hamarkadan eskolako maila guztietan iraunkortasuneko hezkuntza sustatzeko. Bere kudeaketa UNESCOren ardurapean dago.
- **Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategia.** Eusko Jaurlaritzak 2002-2020 eperako diseinatutako dokumentu estrategikoa. Bertan EAEn lortu beharreko bost ingurumen-helmuga eta ezinbesteko bost baldintza ezartzen dira.
- **Gela-hitzarmena.** Gelak iraunkortasunaren alde hartzen duen konpromisoa da. Horren bidez baliabideen erabilera arduratsua, biodibertsitatearen kontserbazioa eta gainerako batzuk lortu nahi dira.
- **Globalizazioa.** Prozesu honen bidez, herrialdeen arteko elkarreaginak eta komunikazioak eraginda munduko merkatuak, gizarteak eta kulturak bateratzen ari dira, eta, ondorioz, izaera globala duten transformazio politiko eta ekonomikoak gertatzen ari dira. Informazioa eskuratzeko, teknologia berriak erabiltzeko... ematen dituen aukerekin batera, zenbait arazo agertzen dira: tokiko merkatuak desagertzea, baliabideak gehiegikeriaz kontsumitzea, ingurumen-inpaktu handiak sortzea, kulturak uniformizatzea eta desagertzea, eta abar.
- **Haur Hezkuntza.** Zero eta sei urte bitarteko borondatezko hezkuntza-etapa. Hiruna urteko bi ziklotan antolatuta dago.
- **Heziketa-zikloa.** Pertsonen lan-munduan sartzen laguntzea du helburu, eta horretarako aukeratu duten lanbidean oinarritzen da. Erdi Mailako Heziketa Zikloetan eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan sailkatzen da, eskatzen den hezkuntza-mailaren eta bakoitzean lortzen den prestakuntza-mailaren arabera.
- **Hezkuntza Proiektua.** Ikastetxearen idearioa da, eta honako galdera hauei erantzuten die: nor gara?, zer nahi dugu?, nolako antolakuntza izango dugu nahi duguna lortzeko? Hezkuntza-komunitateak egiten du eta Ordezkarien Organo Gorenak onartzen du.
- **Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudia.** Ikastetxearen organoak eta dagozkien funtzioak argitzen ditu, baita onartu diren arauak eta aginduak ere. Hezkuntza-komunitateak egiten du eta Ordezkarien Organo Gorenak onartzen du.
- **Ikastetxeko Curriculum Proiektua.** Ikastetxearen prestakuntza- eta hezkuntza-eskaintza definitzen ditu, zertaz, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu behar diren argituz. Irakasleen Klaustroak egin eta onartzen du, eta malgua eta balio anitzekoa izateaz gain, etengabeko berritatzeko-prozesuan dago.
- **Ingurugela.** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak. Irakasleei laguntzeko ikastegiak dira Iraunkortasuneko Hezkuntza bultzatzeko, eta bereziki Eskolako Agenda 21 garatzeko.
- **Ingurumena.** Giza ekintzetan eta, orokorrean, bizidunengan, epe laburrean zein luzean, eragin zuzen nahiz zeharkakoak sorrarazteko gai den osagai fisiko, kimiko, biologiko eta sozialek osatutako sistemari horrela deritzo.
- **Ingurumen-adierazlea.** Ingurumen-fenomeno bati buruzko informazio laburtua ematen duen aldagaia edo aldagaien batura da, eta haren egoeraren eta aldakuntzaren ezagutza eta ebaluazioa ahalbidetzen ditu.
- **Ingurumen-arazoa.** Giza jarduerak, prozesuek edo portaerak – ekonomikoek, sozialek, kulturek, politikoek – eragindako egoera da, eta inguru naturalean, ekonomian edota gizartein inpaktu negatiboak sortzen ditu.
- **Ingurumen-arriskua.** Ingurumenari zauriak, gaixotasunak, galera ekonomikoak edo kalteak eragin diezazkiokeen egoera orori horrela deritzo.
- **Ingurumen Esparru Programa:** Euskal Autonomia Erkidegoa ingurumen-iraunkortasunaren bidean abiatzeko epe labur eta ertainerako helburuak eta ekintzak

- gauzatzen duen programa. Esparru Programen xedea Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiaren (2002-2020) helburuak zehaztea da. Gaur arte bi IEP onartu dira, 2002-2006 eta 2007-2010 aldietarako hain zuzen ere.
- **Ingurumen-hezkuntza.** Banakoek eta kolektibitateek beren ingurunearen kontzientzia hartzeko eta ingurumenaren gaur egungo eta etorkizuneko arazoak ebazteko bidean bakarka zein taldeka jardutera bultzatuko duten ezagutza, balioak, gaitasuna, esperientzia eta borondatea eskuratzeko prozesu iraunkorra da. (Ingurumen Hezkuntza eta Prestakuntzari buruzko Nazioarteko Kongresua. Mosku, 1987).
 - **Ingurumen-inpaktuak.** Jarduera, proiektu edo obra batek ingurumenean eragiten dituen aldaketei horrela deritzegu.
 - **Iraunkortasuneko Hezkuntzaren aldeko konpromisorantz EAEn.** Eusko Jaurlaritzak 2006. urtean sortutako dokumentua EAEn iraunkortasuneko hezkuntza sustatzeko. Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Hezkuntzaren Hamarkadari (2005-2014) lotutako erronka berrietan oinarrituta dago.
 - **Konpetentzia orokorrak:** Hezkuntza osorako nahiz oinarrizko hezkuntzarako ardatz erreferentzialak dira eta hezkuntza-testuinguru guztietan ikasten dira, bai formaletan, bai informaletan. Hezkuntza-konpetentzia orokorrak komunak dira Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arlo eta irakasgai guztietan, eta lortu nahi diren xedeen eta arlo eta irakasgai guztien arteko lotura- elementuak edo bitartekariak dira.
 - **Lanbide Heziketa.** Ikasketa hauen helburua ikasleak prestatzea da gizartean eta enpresetan eskaerarik handiena eta etorkizunik hoberena duten lanpostuetara iristeko.
 - **Lehen Hezkuntza.** Sei eta hamabi urte bitarteko derrigorrezko hezkuntza-etapa. Bina urteko hiru ziklotan antolatuta dago.
 - **LHI.** Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
 - **Oinarrizko Hezkuntza:** sei eta hamasei bitarteko ikasleentzako derrigorrezko hezkuntza-etapa da. Barne hartzen ditu Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Bere helburu nagusia ikasleei oinarri sendoak ematea da, helduen bizitzako arazoei jakintasun nahikoz eta jakintza hori etengabe eguneratzeko gaitasunez aurre egiteko presta daitezen.
 - **Oinarrizko Hezkuntzaren Tutoretza Plana:** ikasleen eskolatzeko-aldi osoan orientazio- eta jarraipen-ekintza guztiak antolatzeko egitura. Oinarrizko konpetentziak lortzea da haien helburua. Tutore-taldeari dagokio egitea, orientatzaileak, aholkulariak edota etaparen koordinatzaileak aholkatuta.
 - **Oinarrizko konpetentziak:** jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza bateratua eta testuinguru bakoitzera egokitua, Oinarrizko Hezkuntzak ikasle guztiek xedetzat izan eta lortu beharrekotzat dituztenak, pertsonaren errealizazioa eta garapena lantzeko eta herritartasun aktiboa eta gizarte-integrazioa lortzeko.
 - **Ordezkarien Organo Gorena.** Euskal Eskola Publikoaren gobernuan parte hartzen duen organoa da. Bertan, estamentu guztietako ordezkariak daude, eta funtsezko erabakiak hartzen ditu, hala nola Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta Antolamendu eta Jarduera Araudia onestea, zuzendaria hautatzea eta ikasleak onartzea.